

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**15768** 18/2021 Errege Lege Dekretua, irailaren 28koa, Enplegua babesteko, ekonomia suspertzeko eta lan-merkatua hobetzeko presako neurriena.

I

SARS-CoV-2 pandemiak eragindako osasun- eta ekonomia-krisiaren ondorioen iraunkortasuna dela-eta maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak pandemia hasi zenetik onartutako zenbait neurriren indarraldia luzatzea xedatu zuen, enpresa- eta ekoizpen-ehunaren, lan-merkatuaren eta langileen gaineko ondorio negatiboak arintzeko asmoz. Errege lege-dekretu hori enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzkoa da.

Horrela eginez, eraginkor egin zuen Enpleguaren Aldeko V. Gizarte Akordioa (V ASDE), zeinaren helburua baitzen krisiari emandako erantzunaren jarraipena ziurtatzeko beharrezko diren neurriak indarrean jarraitzea. Gauzak horrela, hiru motako neurriren luzapena ezarri zen, hain zuzen, COVID-19a dela-eta ezarri zen aldi baterako enplegu-erregulazioaren araubide bereziarekin loturikoak:

a) Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuak Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioekin loturiko salbuespenen arloan jasotako aparteko neurriak.

b) Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretutik datozen aparteko neurriak, langileen langabeziagatik babesaren arlokoak.

c) Malgutasun- eta babes-neurri horien osagarri gisa (ABEEE) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteekin lotura duten neurriak. Hau da, COVID-19aren ondorioak arintzeko lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen apirilaren 12ko 3/2021 Legearen 2. eta 5. artikulua eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriak indarrean jarraitzea xedatu zen. Era berean, dibidenduen banaketaren eta gardentasun fiskalaren inguruko mugak ere luzatu ziren, bai eta aparteko orduak egiteari eta azpikontratatzeei dagokiena ere.

Horren guztiaren osagarri, aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituztenen babesa ziurtatzeko neurriak hartu dira eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan araututako MECUIDA Plana ere luzatu da.

Bukatzeko, onartutako neurrien eraginkortasunaz eta konpondu nahi zuten egoeraren garapenaz arduratzen den Laneko Hiruko Jarraipen Batzordeak zuen protagonista izaera bere horretan segitzea erabaki zen. Are gehiago, berriro eskatu zitzaion aztertzeke zein izango diren garatu beharreko jarduerak maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan bertan jasotako neurrien eraginkortasuna amaitu ondoren.

Esparru horretan, Espainiako Enpresaburuen Elkarteen Konfederazioak (CEOE), Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioak (CEPYME), Langile Komizioak (CC. OO.) eta Langileen Batasun Orokorrak (UGT), Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak inguruabar hauen inguruko ohartarazpena egin dute: hasteko eta behin, dagozkion neurriak aurreikusi ezean, osasun-egoerak, sozialak eta ekonomikoak oso ondorio larriak izan ditzakeela oraindik ere; bigarrenez, gaur egun arte kalte horri aurre egiteko martxan jarritako neurrien eraginkortasunaren inguruko adostasuna dagoela, eta, hirugarrenez, bukatzeko ondorioztatzen dute neurri horiek luzatu behar direla, hargatik eragotzi gabe egin beharreko egokitzapenak egitea, V ASDE egiteko eta maiatzaren 27ko 11/2021

Errege Lege Dekretua (enplegua defendatzeko presako neurriei buruzkoa) onartu eta argitaratzeko arrazoi izan ziren inguruabarrak ez baitira berdinak.

Izan ere, pandemia eta haren ondoriozko krisia konstantea ez bada ere, egia da enpresen eta langileen egoerari begira haren ondorio kaltegarrienetako batzuk bere horretan dirautela. Era berean, egoeraren bilakaera ezezaguna denez, enpresei pandemiaren ondoriozko egoera desberdinetara egokitzea ahalbidetu dien esparruaren indarraldia luzatzea komeni da.

Pandemiaren egoeraz gain, 2021eko irailaren 19an La Palmako Cumbre Viejan hasi zen sumendi-erupzioagatik, uhartearen eremu zabalak hustu egin behar izan dira labakoladaren aurrera egitea dela-eta. Ohiz kanpoko egoera horren ondorioz, eremu horietako jarduera ekonomikoa erabat etenda geratu da, hau da, COVID-19ak enpresentzat eta langileentzat eragindako egoeraren antzekoa gertatu da.

COVID-19ak lan arloan izan dituen ondorio negatiboen aurka borrokatzen metatutako esperientzia –aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak ondorio negatibo horiek arintzeko mekanismo egokia dela erakutsi baitu– hartuta, La Palma uhartearen ezohiko egoera horretan ere antzeko araubidea ezarri behar da, eta kasu horretara zabaldu behar dira kotizazioaren eta langabeziagatiko babesaren arloko neurriak.

## II

Inguruabarrak horiek izanik, UGT eta CC. OO. sindikatuek, CEOE eta CEPYME patronalek, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak, eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak egoera horretarako egoki diren neurriak negoziatu ondoren, Enpleguaren Aldeko VI. Gizarte Akordioa onartu zuten; horren bidez, kotizazioaren eta langabeziagatiko babesaren arloko aparteko neurrien luzapena adostu zen, horien barne zirela aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituztenen alde hartutakoak, bai eta COVID-19arekin zerikusia duten aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteekin loturiko neurri osagarriena ere.

2021eko irailaren 30ean indarrean diren espedienteen kasuan, luzapenerako eskabidea aurkeztu beharko da lan-agintaritzaren aurrean. Eskabidearekin batera, langile bakoitzak 2021eko uztailan, abuztuan eta irailean zehar izan duen etendako orduen edo lan egunen zerrenda aurkeztu beharko da, bai eta, espedienterako arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak eta ekoizpenekoak izan direnean, langileen legezko ordezkaritzaren txostena ere.

Halaber, kotizazioaren arloko aparteko neurrietarako irispidea izateko eta langabeziagatiko prestazioak aitortuak izateko, luzapena baimentzen zaien enpresek 2021eko irailaren 30ean aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen aplikazio-eremuan sartuta dauden eta luzapenean zehar horrela jarraituko duten langileen zerrenda aurkeztu beharko dute.

Gainera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente berriak aurkezteko aukera jasotzen da, jarduera normalizatuan aritzeko modurik ez badago edo jarduteko eragozpenak badaude; horietarako ere kotizazioaren eta langabeziagatiko babesaren arloko aparteko neurriak ezartzen dira. Espediente horiekin zerikusia duten neurri osagarriak ere aplikatuko zaizkie.

COVID-19k eragindako osasun-larrialdiak enpresetan eta enpleguan izan dituen eragin negatiboak arintzeko xedatu diren aurreko arau guztiak bezala, errege lege-dekretuak pandemia dela-eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak duten enpresentzako onurak ezartzen ditu kotizazioarekin loturik; baina berrikuntza garrantzitsua dakar, izan ere, espedienteen sartutako pertsonen gaitasun profesionalak eta haien enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza-ekintzak burutzen dituzten enpresentzat onura desberdinak aitortzen ditu. Lan-arloko Enplegurako Lanbide-heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean xedatutako prestakuntza motetako edozein baliatu ahalko da prestakuntza-ekintza horiek burutzeko.

Lehentasuna emango zaie enpresek eta langileek dituzten benetako beharretara bideratutako prestakuntza-ekintzei, bai eta langileak birgaitzea ahalbidetzen dituztenei, nahiz eta enpresan burutzen den jarduerarekin zuzeneko loturarik ez izan.

Adierazitako helburu horrekin, eman beharreko prestakuntzaren araubidea xedatzen du errege lege-dekretuaren 3. artikulua, eta nabarmentzekoa da espedienteen dauden pertsonen emanez gero, enpresek prestakuntza hori finantzatzeko dituzten kredituak handiagoak izango direla, hargatik eragotzi gabe kotizazioan salbuespen handiagoak izatea horrengatik.

Etorkizunean abian jarriko den Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismoan mota horretako betebeharra sartzea aurreikusten da.

Laugarren artikuluan Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kotizazioekin loturik aplikatuko diren salbuespenak zehazten dira; ehuneko ehunekoak izan daitezke, baldin eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak jardueran aritzeko modurik ez izatea oinarri izan badu, edo zenbatekoak alda daitezke enpresan ari diren langileen kopurua kontuan hartuta eta, berrikuntza gisa, enpresak normaltasunez jarduteko eragozpenak izanaren ondoriozko espedienteek eragindako langileentzako prestakuntza-ekintzak garatzen dituen edo ez kontuan hartuta.

Esparru juridiko berri horretarako trantsizio egokia bermatzeko, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan eta lehenengo xedapen gehigarrian jasotako luzapena xedatzen da, hain zuzen, 2021eko urriaren 31ra arte. Egun horretara arte aplikatuko dira xedapen horiek, bai 2021eko irailaren 30ean indarrean diren espedienteen dagokienez, bai urriaren 1etik 31ra bitartean onartzen edo komunikatzen direnei dagokienez; azken horiei 2021eko irailean egokituko litzaizkiekeen baldintza berberak aplikatuko zaizkie.

La Palma uhartean, 2021eko irailaren 19an, Cumbre Vieja aldean, hasi zen sumendi-erupzioaren ondorioz dagoen egoerari dagokionez, eta COVID-19arekin zerikusia duten espedienteetarako aurreikusitako eskemari jarraiki, aukera ematen da inguruabar horrek eragindako enpresak eta langileak arauan jasotako kotizazioaren eta langabeziagatik babesaren arloko aparteko neurrien onuradun izan daitezen; aukera hori baliatu ahal izateko, jarduera normalizatuan aritzeko modurik ez dagoela edo jarduteko eragozpenak daudela jasotzen duen espedientea izapidetu beharko da.

Laneko Hiruko Jarraipen Batzordeari dagokionez, pandemiak eragindako egoera analizatzeko tresna nagusi izateko zeregina ezartzen zaio, bai eta aurreikusitako neurrien eraginkortasuna baloratzekoa ere.

Bukatzeko, aurreko guztiaz gain, MECUIDA Plana 2022ko otsailaren 28ra arte luzatzen da, bai eta artistak eta arte eszenikoetan eta ikuskizun publikoetan jarduera burutzen duten beste profesional batzuk laguntzeko eta babesteko neurriak – Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoak– ere. Helburua da ikuskizun publikoetako artisten, kulturaren sektoreko teknikarien eta laguntzaileen eta zezenketako profesionalen langabezia-prestazioaren iraupena luzatzea, eta lehen bi kolektiboek prestazio horretarako aparteko irispidea izan dezaten.

### III

Halaber, ekonomia suspertzen ari den egoera berrira egokitu behar dira Gizarte Segurantzak pandemiaren hasieratik aitortu dituen prestazioak, hain zuzen, langile autonomoen aldekoak, nahiz eta funtsezkoenean babes maila bera gordetzen den. Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez, 30/2020 eta 2/2021 errege lege-dekretuetan jaso ziren babes-neurriei jarraipena eman zitzaizen; momentu hartan osasun-krisiaren hasieran aurreikusitako aparteko neurriak mantentzea beharrezkotzat jo zen, baina hargatik eragotzi gabe «osasun-egoera normaltzea aurreikustea eta poliki-poliki normalizatzea». Gauzak horrela, 11/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutako iraungitze-data 2021eko irailaren 30ean jarrita dagoenez, eta

osasun-egoeraren bilakaera positiboa aintzat harturik, egoki ikusi da arau horretan ezarritako neurrien alderdi batzuk berrikustea.

Esanda dago 11/2021 Errege Lege Dekretuaren oinarritzko egitura bere horretan mantentzen dela, beraz, kuoten salbuespena % 90 eta % 25 bitarteko ehuneko aldagarrietan mantentzen da, hilaren arabera, bai eta arau horretan xedatutako zenbait prestazio ere: jarduera etetea dela-eta hura utzi behar izan duten autonomoentzako aparteko prestazioa; beste bat, apartekoa hori ere, 11/2021 Errege Lege Dekretuarekin bat jarduera utzi behar izan dutelako prestazioak jasotzen ari zirentzat; aparteko beste bat, sasoikako langile autonomoentzat eta ohiko bat, norberaren konturako lanarekin bateragarria baita, jarduera uzteagatik jasotakoa. Esan beharra dago, 11/2021 Errege Lege Dekretuarekin bat jarduera uzteagatik prestazioa jasotzen ari diren autonomoentzako aparteko prestazioari dagokionez, hemendik aurrera prestazioa jasotzen jarraitu nahi badute, fakturazioan % 75eko murrizketa izan dutela egiaztatu beharko dutela, bai eta, erreferentzia aldian, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75etik gorako sarrerak jasotzen ez dituztela ere.

Era berean, pasa den irailaren 19an La Palma uhartean izandako sumendi-erupzioak eragindako langile autonomoentzako berariazko neurriak hartzen dira; izan ere, egoera konplikatu dela-eta Gobernuak aurreikuspen bereziak egin behar ditu aldagai –fisiko, geologiko, klimatikoak– anitzeko panoramari aurre egin ahal izateko, gaur egun ziurgabetasuna baita nagusi uhartearen ekonomia sektore guztientzat.

Gizarte-elkarrizketa izan dadila bermatzen jarraitu behar da, hori baita langile autonomoak babesteko ahaleginean adostasuna lortzeko bidea; batetik, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren babespean sortutako jarraipen batzordearen bidez, eta, bestetik, gizarte-elkarrizketaren esparruan, jarduera uzteagatik prestazioaren araudiaren berrikusketaren bidez, jarduera aldi batez uzteagatik kasu gehiagotara zabaldu ahal izateko.

Bukatzeko, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatu egiten da zenbait arauen aldaketak agerian utzi dituzten arazoak presaz zuzentzeko, horrela eginez onuradunentzat ahalik eta babesik handiena bermatuko delakoan.

#### IV

Hauxe da errege lege-dekretu honen egitura: hamabi artikulua, hamahiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bost azken xedapen.

Enpleguaren Aldeko VI. Gizarte Akordioa I. tituluan –lehenengo zazpi artikuluek osatzen baitute– dago jasota bai eta lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen gehigarrietan ere.

Lehenengo artikulua aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen luzapena ezartzen du, 2022ko otsailaren 28ra arte izan den pandemiaren egoeran oinarri badute; baina luzapena eskatu beharko zaio lan-agintaritzari eta eskatzen den dokumentazio osagarria eskabidearekin batera aurkeztu. Halaber, espedientea igorri beharko da Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzara, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bigarren artikulua errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera jardueran aritzeko modurik ez izateagatik eta jarduteko eragozpenak izateagatik sortzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente berriei aplikatu beharreko arauak jasotzen ditu.

Hirugarren artikulua Gizarte Segurantzaren salbuespenekin loturiko prestakuntza-ekintzen araubidea jasotzen du, eta horren barruan, ekintza horiek burutzeko betebeharra ezartzen du, bai eta haien helburua eta eskakizunak, langileen legezko ordezkaritzari eman beharreko informazioa eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak egin behar duten egiaztatze eta kontrola ere.

Laugarren artikulua luzatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen kotizazioaren arloko onurak arautzen ditu, espediente motaren arabera.

Bosgarren artikulua honakoekin zerikusia duten eduki osagarriak luzatzen ditu: dibidenduen banaketa, gardentasun fiskala, enpleguaren babesa, aparteko orduak egitea, kontratazio berriak eta lanak kanpora ateratzea, bai eta COVID-19aren ondorioak arintzeko lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen apirilaren 12ko 3/2021 Legearen 2. eta 5. artikulua.

Seigarren artikulua irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan langileak babesteko dauden neurrien luzapena jasotzen du.

Zazpigarren artikulua aldizkako kontratu finkoa duten pertsonak edo urtero data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituztenak langabeziagatik babesteko aparteko neurriak luzatzen ditu.

Zortzigarren artikulua kotizaziotik salbuesten ditu langile autonomoak, baldin eta jarduera uzteagatiko prestazio-modalitatearen bat jaso badute, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren babesean.

Bederatzigarren artikulua jarduera uzten dutenentzako aparteko prestazio hau arautzen du: COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritza eskudunak emandako ebazpenaren ondorioz jarduera osoa aldi baterako etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoentzako.

Hamargarren artikulua norberaren konturako lanarekin bateragarria den jarduera uzteagatiko prestazioari eusten zaiola jasotzen du, bai eta langile autonomoek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 327. artikuluan ezarritako jarduera uzteagatiko prestazioaren eskaera egin ahalko dutela ere, testu bategin horren beraren 330.1 artikuluan a), b), d) eta e) letretan jasotako baldintzak eta artikulua honetan ezartzen diren eskakizunak betetzen badituzte.

Hamaikagarren artikulua jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa jasotzen du jardunean ari diren eta 2021eko irailaren 30ean lana uzteagatik 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluetan jasotako prestazioetako bat jasotzen ari diren, baina errege lege-dekretu honen 10. artikuluan jasotzen den jarduera uzteagatiko ohiko prestazioa jasotzeko eskubidea ez duten langile autonomoentzat; errege lege-dekretu hori enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurri buruzkoa da.

Hamabigarren artikulua jarduera uzten duten sasoikako langile autonomoentzako aparteko prestazioa jasotzen du.

Lehenengo xedapen gehigarriak Laneko Hiruko Jarraipen Batzordearen eginkizunak eta haren funtzionamendua jasotzen ditu.

Bigarren xedapen gehigarriak hauek arautzen ditu: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzaren jarduna, haren eskumenak gauzatzean, eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-salbuespenekin loturiko eskakizunak eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzea, hain zuzen, COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteekin loturikoak.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du beharrezkoa dela etorkizunean abian jarriko den Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismoan integratzea kotizazioaren arloko onurak lotuta egon behar direla enpresek prestakuntza-ekintzak benetan garatzearekin.

Laugarren xedapen gehigarriak espedientearen aplikazio-eremuan dauden langileen zerrenda, haren barruan egoten jarraituko dutenena, hain zuzen, aurkezteko betebeharrak ezartzen du baldintza gisa kotizazioaren eta langabeziagatikko babesaren arloko aparteko neurrien onuradun izan ahal izateko.

Bosgarren xedapen gehigarriak Cumbre Viejako aldean izan den sumendi-erupzioak eragindako Kanariar Uharteetako enpresen eta langileen aldeko aparteko neurriak ezartzen ditu; alegia, arrazoi horregatik jarduera etenda edo mugatua izan duten enpresetara zabaldu dira COVID-19arekin loturiko espedienteetarako xedatutako neurriak.

Seigarren xedapen gehigarriak La Palmako Cumbre Viejan izan den sumendi-erupzioak eragindako langile autonomoentzako aparteko neurriak jasotzen ditu Gizarte Segurantzari dagokionez.



Errege lege-dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak batzorde parekidea eratu beharko dela ezartzen du, Estatuaren Administrazio Orokorreko, Kanarietako Autonomia Erkidegoko eta eragindako toki-entitateetako ordezkariak osatua, irailetik, La Palma uhartean ari diren seismoek eta sumendi-erupzioek eragindako kalteak arintzeko administrazio publikoek bultzatzen dituzten jarduketak eta neurriak planifikatu, sustatu eta koordinatzeko.

Batzorde parekide horrek administrazioen jardun koordinatua bermatuko du eta, besteak beste, Babes Zibilaren uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 25.2 artikulua koordinazio batzordeetarako jasotzen dituen eginkizunak izango ditu; administrazio organoak bikoiztea ekiditu nahi da horrela.

Zortzigarren xedapen gehigarriak arautzen du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak informazioa eman ahal diezaien lan fundazio parekideei –Estatu mailako hitzarmen sektorialen babespean ezarritakoei– hain zuzen, haien funtzionamendura bideratutako ekarpenak kudeatzeko behar duten informazioa, hitzarmenetan xedatutakoarekin bat.

Bederatzigarren xedapen gehigarriak MECUIDA plana luzatzen du 2022ko otsailaren 28ra arte.

Hamargarren xedapen gehigarriak arte eszenikoetan eta ikuskizun publikoetan diharduten artisten eta beste profesional batzuen langabeziagatiko laguntza- eta babes-neurriak luzatzen ditu; azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuan xedatu ziren neurri horiek.

Xedapen iragankor bakarrak maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak jaso zuen erregimenaren luzapena xedatzen du 2021eko urriaren 31ra arte.

Hamaikagarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, errege lege-dekretu honen 4. eta 8. artikuluetan, eta xedapen iragankor bakarrean jasotako Gizarte Segurantzaren kotizazio-salbuespenek ez dute eraginik izango langileengan; alegia, haiek aplikatzen diren aldia benetan kotizatutakotzat hartuko da ondorio guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 20. artikulua 1. eta 3. apartatuetan ezarritakoa.

Hamabigarren xedapen gehigarriak, langile autonomoek jarduera berreskuratzeko Gizarte Segurantzaren arloko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordeari esleitzen dio 8., 9., 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egiteko ardura.

Hamahirugarren xedapen gehigarriak jarduera uzteagatiko prestazioaren erregulazioa gizarte-elkarrizketaren esparruan berrikustea aurreikusten du, prestazioa jarduera aldi baterako uzten den kasuetan ere jaso ahal izateko eta, babes-ekintzaren barruan, ekonomia ziklo negatiboaren edo egiturazko beste ekonomia aldaketaren ondoriozko arrazoiekin loturiko egoerak aintzat hartzeko.

Xedapen iragankor bakarrak maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak jaso zuen erregimenaren luzapena xedatzen du 2021eko urriaren 31ra arte.

Azken xedapenetako lehenengoak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikulua 7. apartatua aldatzen du.

Azken xedapenetako bigarrenaren bidez, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da. Hain zuzen, 7. artikulua 2. apartatua aldatzen da Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak xedatutako erregulaziora itzultzeko 2021eko uztailaren 11tik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin, Urrutiko Lanaren uztailaren 9ko 10/2021 Legea indarrean jarri zen eguna baita hori.

Azken xedapenetako hirugarrena eskumen tituluei buruzkoa da, zeinen babespean ematen baita errege lege-dekretu hau; azken xedapenetako laugarrenak gobernua gaitzen du arau honetan xedatutakoa garatu eta exekutatzeko, eta azken xedapenetako bosgarrena indarrean jartzeari buruzkoa jasotzen du.

arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarritzen da –besteak beste, COVID-19ak eta La Palmako Cumbre Vieja aldean izandako sumendi-erupzioak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz oraindik amaitu ez den salbuespenezko egoera larrian–, eta horrek ezinbesteko egiten du erantzun egokia ematea lan-eremuan eta gizarte-eremuan sortzen diren premiei.

Konstituzioaren 86. artikulua araberan, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «premia apartekoa eta presakoa egonez gero», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren araberan, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarri juridikoa; 68/2007 epaia, 10. oinarri juridikoa, eta 137/2011 epaia, 7. oinarri juridikoa), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan–, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Funtsean, errege lege-dekretu hau onartzeko ezohiko eta presako beharrezkoak judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 14/2020 epaia, urtarrilaren 28koa, 4. oinarri juridikoa), halako eran non erantzun egokia emango baita enpresen jardura ekonomikoa eta ekoizpena berriro bere onera ekartzeko, segurtasun juridikoa bermatzeko eta deskribatutako egoera kalteberak izan daitezkeen taldeak babesteko; lehentasun horiek aparteko eta presako ezaugarriek definitzen dituzte.

Azalduko arrazoi guztiek justifikatzen dute, zabal eta arrazoituta, arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa). Bestalde, beharrezkoa den lotura dago azalduko urteko egoeraren eta horri aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean; beraz, ez da egon adierazitako konstituzio-tresnaren abusuzko erabilerarik edo erabilera arbitrarioak.

Laburbilduta, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietan ezohiko eta presako beharrezkoaren inguruabarrak gertatzen dira, Konstituzioaren 86. artikulua arautzen duen bezala. Gainera, lortu nahi diren helburuak ezin dira lortu lege bat presako prozeduraren bidez izapidetuta.

Halaber, errege lege-dekretu honek ez du eraginik edukiko Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbeharrak eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

## VI

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan erregulazio onaren printzipioak ezartzen dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Eta errege lege-dekretu honek printzipio horiek betetzen ditu.

Premia- eta efikazia-printzipioekin bat etorritik, interes orokorreko arrazoi batek justifikatzen du araugintza-ekimena, behin lortu nahi diren helburuak identifikatuta eta errege lege-dekretua jota tresna egokientzat helburu horiek lortuko direla bermatzeko. Bestalde, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak egokiak eta neurritzkoak dira

eurak onartu beharra ekarri duten beharrizanetarako. Egiaztatu da ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko lukeenik edo jasotzaileei betebeharrak gutxiago ezarriko liekeenik. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimen hau gauzatzean koherentzia gorde da gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta segurtasuneko araugintza-esparru bat sortu da, erraztasunak emango dituen araua ezagutzeko eta, ondorioz, ukitutako pertsonen eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Arau honek gardentasunaren printzipioa ere betetzen du; izan ere, argi eta garbi zehazten ditu bere arrazoiak eta helburuak, azalpen-zatian eta memoriaren dagokion apartatuan. Beste alde batetik, ez dira egin herritarrek parte hartzeko izapideak, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26. artikuluan ezartzen dituenak, artikuluko horren 11. apartatuan errege lege-dekretuetarako ezartzen duen salbuespenari helduta.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 7. eta 17. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da; horiek Estatuari eskumen eskusiboak ematen dizkiote lan-arloko legediaren gainean eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legediaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuz, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroaren eta Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2021eko irailaren 28ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. TITULUA

### Enpleguaren Aldeko VI. Gizarte Akordioa

1. artikulua. *Pandemiaren ondoriozko krisiarekin loturiko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen luzapena baimentzea.*

1. Baldin eta enpresak edo erakunde titularrak eskabidea aurkezten badu, artikuluko honen 2. apartatuan jasotako dokumentazioarekin batera, dena delako espedientea izapidetu zuen lan-agintaritzaren aurrean, 2021eko urriaren 1etik 15era, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente hauen luzapena baimendu egingo da: 2021eko irailaren 30ean indarrean zeudenak Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurri buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 1. eta 2. artikuluek xedatutakoarekin bat, bai eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aplikatu behar zaienak.

Eskabidea eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ezean, horretarako ezarritako epean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea amaitutzat joko da eta 2021eko azaroaren 1etik aurrera ez da aplikatuko.

2. Espedientea luzatzeko eskabidearekin batera, langileetako bakoitzak 2021eko uztailako, abuztuak eta iraileko hilabeteetan etenda edo murriztuta izan dituen lan-ordu edo -egunen zerrenda aurkeztu beharko da, behar bezala identifikatua lantokietako bakoitzarekin.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aplikatu behar zaien espedienteen kasuan, haiek negoziatu zituzten langileen ordezkarien txostena aurkeztu beharko da.

3. Lan-agintaritzak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzara bidaliko du espedientea egoki izan daitezkeen ondorioak izateko, hargatik eragotzi gabe dagokion ebazpena ematea.

4. Enpresak eskabidea aurkezten duen egunetik kontatuta hamar egun balioduneko epean, lan-agintaritzak ebazpena eman beharko du; baldin eta dokumentazioa 2.



apartatuak jasotako eskakizunekin bat aurkeztu bada, ebazpena aldekoa izango da eta espedientea 2022ko otsailaren 28ra arte luzatzeko baimena jasoko du.

Ebazpen espresua egon ezean, luzatzeko eskaera onartu dela ulertuko da.

2. artikulua. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak jarduera normalizatuan aritzeko modurik ez izateagatik edo jarduteko eragozpenak izateagatik, eta egoera horietako batetik bestera pasatzea.*

1. Agintaritza eskudunek 2021eko azaroaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra COVID-19arekin loturik hartzen dituzten osasunaren arloko murrizketa eta euste-neurri berriek eragindako enpresa eta erakundeek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea eskatu ahaliko dute jarduera normalizatuan aritzeko modurik ez izateagatik edo jarduteko eragozpenak izateagatik –Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua xedatutakoarekin bat–, salbu eta 2. apartatuak xedatutakoa aplikatu behar bazaie.

Enpresa eta erakunde horiek onura hauek izan ahaliko dituzte eragindako lantokietako kotizazio-kontuaren kodeei atxikita eta alta emanda dauden langileei dagokienez: 4. artikuluan dagoen espediente mota bakoitzarentzat aurreikusitako salbuespen-ehunekoak, betiere arau honetan jasotako gainerako eskakizunak betetzen badituzte.

Ebazpen espresua egon ezean, dagokion ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea luzatzeko eskaera onartu dela ulertuko da.

Kotizazioaren eta langabeziagatik prestazioen arloko aparteko neurriak, 4. eta 6. artikuluan xedatutakoak, aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da arau honetan jasotako eskakizunak eta prozedurak betetzea.

2. Aurreko apartatuak jasotakoarekin bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente aplikatzeko baimena lortu duten enpresak, hain zuzen ere, jarduera normalizatuan aritzeko modurik ez izatea edo jarduteko eragozpenak izatea oinarri duen espediente aplikatzeko baimena, edo 1. artikulua xedatutakoarekin bat jardueran aritzeko modurik ez izatea edo jarduteko eragozpenak izatea oinarri duen espediente luzatzeko eskabidearen aldeko ebazpena jaso duten enpresak jarduteko modurik ez izatek jarduteko eragozpenak izatera, eta alderantziz, pasatu ahaliko dira agintaritza eskudunek hartzen dituzten osasun-murrizketen aldaketen ondorioz, eta horretarako ez da beharrezko izango aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente berria izapidetzea.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, enpresa jasaten ari den ezinbesteko egoeraren arabera salbuespen-ehunekoa, 4. artikulua espediente mota horietarako jasota, aplikatuko da aldi bakoitzean, hau da, jardueran aritzeko modurik ez izateagatik edo jarduteko eragozpenak izateagatik aplikatu daitekeena.

3. Enpresek, baldin eta euren egoera aldatu bada aurreko apartatuan azaldutako moduan, hauek jakinarazi beharko dizkiete espediente onetsi duen lan-agintaritzari eta langileen legezko ordezkariari: zer egoera-aldaketa gertatu den, aldaketak ondorioak noiz sortuko dituen eta haren eraginpean zer zentro eta langile dauden.

Lan-agintaritzari egoeraren aldaketaren berri eman dioten enpresek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 2.3 artikuluan ezartzen duen bezala. Erantzukizunpeko adierazpen hori aski izango da salbuespen-ehunekoa aplikatzeko, kasuan kasukoa, enpresaren ezinbesteko egoeraren arabera (jardueran aritzeko modurik ez izatea edo jarduteko eragozpenak izatea).

Lan-agintaritzak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari helaraziko dio komunikazio hori, Gizarte Segurantzaren kuoten ordainketa-salbuespenak zuzen aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak garatzearen ondorioetarako.

Era berean, espediente horiei laugarren xedapen gehigarrian jasotzen den betekizuna ere aplikatuko zaie.

3. artikulua. *Gizarte Segurantzaren kotizazio-salbuespenei loturiko prestakuntza-ekintzak.*

1. Laugarren artikulua 1.a).2. eta 1.b).2. apartatuek jasotzen dituzten Gizarte Segurantzaren kotizazio-salbuespenak lortzeko, eta arau honek xedatutako eskakizunak hargatik eragotzi gabe, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea 1. artikuluan jasotakoarekin bat luzatu zaien enpresek eta 2. artikuluan aurreikusitako jarduera eragozteko egoeretako batean daudenean ABEEEk eragindako pertsona guztientzat garatu beharko dituzte prestakuntza-ekintzak 2021eko azaroaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra, artikulua honetan jasotako ezaugarriak izango dituztenak.

2. Prestakuntza-ekintza horien helburua izango da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako langileen gaitasun profesionalak eta haien enplegarritasuna hobetzea.

Enpresen eta langileen benetako beharrei erantzuna ematen dieten prestakuntza-ekintzak garatzeak du lehentasuna, eta horren barruan daude langileei gaitasun digitalak hornitzekoak eta gaitasun berriak hornitzekoak, nahiz eta zuzeneko lotura ez izan enpresan burutzen den jarduerarekin.

3. Prestakuntza-ekintzak Lan-arloko Enplegurako Lanbide-heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean xedatutako prestakuntza motetako edozeinen bidez garatuko dira, eta arau horretan jasotzen diren eskakizunekin eta prozedurekin bat.

Prestakuntza-ekintzak burutzeko epea 2022ko ekainaren 30ean amaituko da.

Laugarren artikulua 1.a).2. eta 1.b).2. apartatuek jasotzen dituzten salbuespenak aplikatu zaizkien enpresetako langile bakoitzak errege lege-dekretu honetan arautzen den aldi zehar bete behar duen gutxieneko prestakuntza-ordu kopurua zehazten da ondoren, horretarako enpresaren tamaina –10 langiletik aurrera– aintzat hartuta:

- a) 10 eta 49 langile bitarteko enpresen kasuan: 30 ordu.
- b) 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan: 40 ordu.

Prestakuntza-ekintza horiek lanaldi-murrizketako edo kontratu-eteteko aldi zehar garatu beharko dira, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten esparruan, edo lanaldian zehar. Edonola ere, legez ezarritako atsedenaldiak eta lan bizitza, bizitza pertsonala eta familia bizitza bateragarri egiteko eskubidea errespetatu beharko dira.

4. Langileen legezko ordezkariak, halakorik egonez gero, proposatzen diren prestakuntza-ekintzen berri jaso beharko du.

5. Behin prestakuntza-ekintzak burutzeko gehieneko aldia amaitutakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak 1.a).2. eta 1.b).2. apartatuek enpresentzat jasotzen dituzten salbuespenak 2021eko azaroaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean aplikatu ahal izateko eskubidea eragin duten langileen zerrenda helaraziko dio Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, bere aldetik, prestakuntza-ekintzak artikulua honek ezarritako eskakizunekin bat burutu direla egiaztatuko du.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztapena egin ondoren, artikulua honek jasotzen dituen prestakuntza-ekintzak burutu ez direla ondorioztatzen bada, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari emango dio horren berri; azken horrek zehapen-espedienteak edo kuotak –aplikatutako zenbatekoen eta, hurrenez hurren, 4. artikulua 1.a).1. eta 1.b).1. apartatuetan ezarritakoen arteko aldeari dagozkionak– likidatzekoak abiaraziko ditu. Ekintza horiek zenbat langilerekin loturik ez diren burutu, kopuru hori hartuko da kontuan espediente horietarako.

6. Enpresak egiaztatzen badu, langileei prestakuntza-ekintzak eskaini badizkie ere, langileak ez duela horietan parte hartu, ez ditu aurreko apartatuan aipatzen diren salbuespenen itzulketa egin beharko.

7. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak elkarreragingarritasunerako prozedura automatizatuak ezarriko dituzte, web

zerbitzuak barne, hobari linea hori abian jartzeko enpresen ekimenaren inguruan dituzten datuak elkarri pasatzeko.

8. Hargatik eragotzi gabe arau honetan xedatutako salbuespenen arloko onurak eta artikulu honek xedatutakoaren arabera horiek prestakuntzarekin lotzeko betebeharra, aurreko paragrafoetan jasotako baldintzekin bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako pertsonari zuzenduriko prestakuntza-ekintzak garatzen dituzten enpresek haiek finantzatzeko kreditu gehikuntzarako eskubidea izango dute programatutako ekintzen eremuan, ondoren zehazten den moduan enpresaren tamainaren arabera:

- a) langile 1etik 9ra bitartean dituztenek, 425 euro, pertsonako.
- b) 10 langiletik 49ra bitartean dituztenek, 400 euro, pertsonako.
- c) 50 langile edo gehiago dituztenek, 320 euro, pertsonako.

Kreditu gehikuntza hori finantzatzeko da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan egingo den aparteko ekarpenaren bidez.

Halaber, prestakuntza horren jarraipena egiteko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa indartuko da kudeaketako probintzia-unitateetan.

#### 4. artikulua. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen kotizazioaren arloko onurak.*

1. Jardun normalizatuan aritzeko eragozpenak izatearen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek, 1. eta 2. artikuluetan jasotzen direnek, Gizarte Segurantzaren kotizazioan salbuespen-ehuneko hauek izan ahalko dituzte:

a) Enpresak hamar langile –edo horien pareko– edo gehiago badituzte Gizarte Segurantzaren alta emanda 2020ko otsailaren 29an, 2021eko azaroan eta abenduan eta 2022ko urtarrilean eta otsailean sortutako enpresa-ekarpenen salbuespen-ehunekoak hauek izango dira:

1.a Ehuneko berrogeia, enpresak 3. artikuluan adierazten diren prestakuntza-ekintzak garatzen ez baditu, adierazitako aldian, lan-kontratua eten zaien edo lanaldia murriztu zaien langileentzat.

2.a Ehuneko laurogeia, enpresak 3. artikuluan adierazten diren prestakuntza-ekintzak garatzen baditu, adierazitako aldian, lan-kontratua eten zaien edo lanaldia murriztu zaien langileentzat.

b) Enpresak hamar langile –edo horien pareko– baino gutxiago baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda 2020ko otsailaren 29an, 2021eko azaroan eta abenduan eta 2022ko urtarrilean eta otsailean sortutako enpresa-ekarpenen salbuespen-ehunekoak hauek izango dira:

1.a Ehuneko berrogeita hamar, enpresak 3. artikuluan adierazten diren prestakuntza-ekintzak garatzen ez baditu, adierazitako aldian, lan-kontratua eten zaien edo lanaldia murriztu zaien langileentzat.

2.a Ehuneko laurogeia, enpresak 3. artikuluan adierazten diren prestakuntza-ekintzak garatzen baditu, adierazitako aldian, lan-kontratua eten zaien edo lanaldia murriztu zaien langileentzat.

2. Edozein sektore edo jarduerako enpresa eta erakundek jardueran aritzeko modurik ez izateagatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak –1. eta 2. artikuluetan jaso direnak– baimenduta dituztenean, ehuneko ehuneko salbuespen egongo dira 2021eko azarotik, itxiera aldian zehar, 2022ko otsailaren 28ra bitartean sortu den enpresa-ekarpena ordaintzetik, jarduera etenda duten langileei, eragindako zentroei eta eteteak eragin dituen aldi eta lanaldi ehunekoiei dagokienez.

3. Lehenengo apartatuko salbuespen-ehunekoen onura baliatu ahalko dute aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea duten enpresa hauek:

a) Maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren enpresak, hain zuzen, espedientea luzatuko zaiena 1. artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren apartatuko a) letran aipatutako enpresak, hain zuzen, 2021eko urriaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikulua jasotzen dituen arrazoiaren oinarritutako ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik errege lege-dekretu honen 5. artikulua xedatutakoaren arabera arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolakuntzakoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako batera aldatzen direnak.

c) Beste baten mendekotzat edo beste baten balio-kateko enpresatzat jotako enpresak, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak xedatutakoarekin bat, 2021eko urriaren batetik 2022ko otsailaren 28ra bitartean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarria duen ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik errege lege-dekretu honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolakuntzakoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako batera aldatzen direnak.

4. Aurreko apartatuetan ikusi diren salbuespenak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenari aplikatuko zaizkio, 2021eko azaroaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean jarduera etenda duten langileei dagokienez, eta eteteak eragin dituen aldi eta lanaldi ehunekoei dagokienez, bai eta baterako bilketaren kuotei ere; urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori.

Aurreko apartatuetan aipatzen diren kuota-salbuespenak aplikatzeko prozedura eta eskakizunak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoak izango dira, hargatik eragotzi gabe 1., 2. eta 3. artikuluetan eta artikulua honetako 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoa.

5. Hirugarren apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak aipatzen dituen enpresei dagokienez, hau izango da enpresaren jarduerak EJSN-09 sailkapenean duen kodea: laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen estaldurarako kotizazio-tasak zehazteko 2020ko irailean aurkeztutako kuota-likidazioetan aplikatu behar dena, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

6. Enpresak eskatuta, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aplikatuko ditu 1.a).2. eta 1.b).2. apartatuetan jasotzen diren salbuespenak, enpresak prestakuntza-ekintza egingo duten langileen eta lanaldia eten edo murriztu den aldiaren berri eman ondoren. Langileen eta aldien gaineko komunikazio hori enpresak 3. artikuluan jasotako prestakuntza-ekintzak burutzeko konpromisoa hartu izanaren erantzukizunpeko adierazpena izango da.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, erantzukizunpeko adierazpena den komunikazio hori kuoten likidazioa kalkulatzeko eskatu aurretik aurkeztu beharko da, hots, sortutako lehenengo kuoten aldiari dagokion kuoten likidazioa kalkulatzeko eskatu aurretik. Erantzukizunpeko adierazpena den komunikazio hori dena delako erregelamenduz ezarritako aurkezpen epealdiaren barruan egindako kuoten likidazioaren kalkularen azken eskabidearen ondoren eginez gero, salbuespenak haren ondoren aurkezten diren likidazioei aplikatuko zaizkio, baina ez, jada, likidatuta daudenei.

Erantzukizunpeko adierazpena den komunikazioa, apartatu honetan jasoa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ezartzen dituen datuen transmisioaren bidez egingo da, horretarako Gizarte Segurantzaren eremuan datuak elektronikoki bidaltzeko sistema (RED sistema) erabiliz; martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduan araututako sistema da hori.

5. artikulua. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren eduki osagarrien indarraldia luzatzea.*

1. COVID-19arekin zerikusia duen ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea 2021eko urriaren 31ko datan aplikatzen ari diren enpresek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea izapidetu ahalko dute, beste hura indarrean den bitartean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua xedatutakoarekin bat.

Kasua hori denean, oraingokoaren ondorio data izango da bestea amaitzen denekoa.

2. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren dibidendu-banaketarekin lotutako mugak eta aurreikuspenak 2022ko otsailaren 28ra arte egongo dira indarrean arau honen aurretik edo arau hau betez baimendutako espediente guztietarako, baldin eta errege lege-dekretu honetan aurreikusitako salbuespenak aplikatzen bazaizkie.

Zerga-administrazioek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari emango diote apartatu honetan jasotako eskakizuna bete ez duten enpresen berri, urteetako bakoitzean errege lege-dekretu hauetan xedatutakoaren arabera aplikatu dituzten salbuespenei dagokionez: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua; Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua; Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunaren ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretua; irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua; abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretua; Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretua; maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretua, eta errege lege-dekretu honen 4. artikulua.

Aurreko paragrafoan ezarritako betetzearen ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zerga-administrazioei helaraziko die kotizazio-salbuespena aplikatu duten enpresen zerrenda.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren zerga-gardentasunarekin lotutako mugak eta aurreikuspenak 2022ko otsailaren 28ra arte egongo dira indarrean errege lege-dekretu honen aurretik edo berau betez baimendutako espediente guztietarako.

Apartatu honetan adierazitakoari dagokionez, aurreko apartatuko azken bi paragrafoetan ezarritakoa aplikatuko da.

4. Enpleguaren babesa irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aplikatuko da aurreko aldiei dagokionez eta arau honetan jasotako onuretatik eratoritzen denari dagokionez, eta epeen arabera.

5. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen diren aparteko orduak, kontratazio berriak eta esternalizazioak egiteari buruzko mugak eta salbuespenak 2022ko otsailaren 28ra arte egongo dira indarrean, eta errege lege-dekretu honen arabera baimendutako espediente guztietan ere aplikatuko dira.

6. Apirilaren 12ko 3/2021 Legearen 2. eta 5. artikulua 2022ko otsailaren 28ra arte egongo dira indarrean (3/2021 Errege Lege Dekretua, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko).

6. artikulua. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan langileak babesteko jasotako neurrien indarraldia luzatzea.*

1. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25. artikuluan 1.a) apartatuan eta 2.etik 5.era doazenetan xedatutako langabeziagatiko babeserako neurriak 2022ko otsailaren 28ra arte aplikatuko zaizkie arau honetan xedatutakoarekin bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako pertsonei.

2. Errege lege-dekretu honetan adierazitako kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko prozedurek eragindako langileei aitortzen zaien langabeziagatiko prestazioaren zenbatekoa zehazteko ehuneko hirurogeita hamarra aplikatuko zaio, 2022ko otsailaren 28ra arte, espedienteak eragindako lan-harremanaren oinarri



arautzaileari, hargatik eragotzi gabe Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 270.3 artikulua ezartzen dituen gehieneko eta gutxieneko zenbatekoen aplikazioa; urriaren 30eko Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan arautzen diren langileak babesteko aparteko neurriak 2022ko otsailaren 28ra arte aplikatuko dira, bai artikulua horietan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden pertsonentzat, bai urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan eta errege dekretu honetan aurreikusten diren enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean daudenentzat.

4. Lehenengo artikulua xedatutakoaren arabera aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak luzatzeko baimena duten enpresek langabeziagatiko prestazioen baterako eskabide berria egin beharko dute 2021eko azaroaren 1aren biharamunetik kontatuta hamabost egun balioduneko epean, edo luzapena onartzeko lan-agintaritzaren ebazpen espresua edo administrazio-isiltasunaren ziurtagiria jakinarazten den egunaren biharamunetik, azaroaren 1a baino beranduago jasotzen bada.

Bigarren artikulua xedatutakoarekin bat izapidetzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente berrien kasuan, baterako eskabidea lan-agintaritzaren aldeko ebazpen espresua edo administrazio-isiltasunaren ziurtagiria jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da.

Langabeziagatiko prestaziorako eskabidea garaiz kanpo aurkeztuz gero, aurkezten den egunetik aurrera aitortuko da hura, hargatik eragotzi gabe entitate kudeatzaileak inguruabar hori Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari komunikatzea dagozkion ondorioetarako.

5. Entitate kudeatzaileak prestazioak aitortuko ditu lanaldia eteteko edo murrizteko neurriak aplikatu daitezkeen lehen eguneko ondorioekin, eta hurrengo paragrafoetan adierazten den enpresaren komunikazioa jaso ondoren ordainduko.

Enpresak, behin hilabetea amaitutakoan, aurreko hilabete naturalean aldi baterako enplegu-erregulazioko prozeduraren eraginpeko langileen jardun-aldien eta jardun ezako aldien inguruko informazioa helarazi beharko du [certific@2](mailto:certific@2) aplikazioa baliatuta egiten den jarduera aldien komunikazioaren bidez.

Komunikazio hori bidali beharko da kasu hauetan:

- a) Langileak hil natural osoa eman duenean jardueran aritu gabe.
- b) Langileak jardun-aldiak eta jardun-ezarenak izan dituen hilabetean zehar.
- c) Langileak lanaldi-murriztua izan duenean hilabete osoan zehar edo haren zati batean.
- d) Hil naturalean jardun-ezarenaldiak eta lanaldi-murrizketakoak konbinatu direnean.

Lanaldi-murrizketa izan den egunen kasuan, lan egindako orduak lanaldi osoko egun bihurtuko dira. Horretarako, zatiketa hau egingo da: hilean lan egindako orduen guztizko kopurua zati lanaldi-murrizketa aplikatu aurretik langileak eduki duen ohiko lanaldiko orduen kopurua.

Espedientetik langile batzuk edo guztiak ateratzen dituzten enpresek entitate kudeatzaileari jakinarazi beharko diote zein langilek utziko dioten eteteko edo murrizteko neurrien eraginpean egoteari, erabakia eraginkorra izan baino lehen.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente osoari behin betiko uko egin nahi dioten enpresek ere aipatu jakinarazpen hori egin beharko dute.

6. Bosgarren apartatua aipatutako jakinarazpena gorabehera, enpresak kontratua eteteko eta lanaldia murrizteko neurrietako bajak eta aldaketak jakinarazi behar dizkio entitate kudeatzaileari aurretiaz, legez ezarritako eran. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak eskura izango ditu datu horiek.

7. artikulua. *Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonak edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituztenak langabeziagatik babesteko aparteko neurrien luzapena.*

1. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9.1 artikulua araututako aparteko prestazioa aitortuko zaie aldizkako kontratu finkoa duten langileei eta data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituzten lanaldi partzialeko kontratua dutenei, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan jasotako arrazoiengatik 2021eko jarduera-aldi teoriko osoan edo zati batean aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean sartuta egon diren horiei, kasu honetan: aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean egoteari jarduera-aldia amaitzeko eguna iristeagatik uzten diotenean edo jarduera-aldi hori benetan amaitzen denean.

Prestazio hori aitortzeko, enpresak aparteko prestazioen baterako eskabidea aurkeztu beharko du; eskabide horretan jasoko dira aldizkako kontratu finkoa duten edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituzten pertsona guztiak, hain zuzen, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean egoteari utziko diotenenak edo horrelako espediente baten eraginpeko jarduera-aldia bukatu dutenak.

2. Era berean, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua araututako aparteko prestaziorako irispide izango dute aldizkako kontratu finkoa duten edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiteko denbora partzialeko lan-kontratu mugagabea duten langileek, azken kanpainian aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean egon ez badira ere, haien jarduera eten bada eta, horren ondorioz, langabeziako legezko egoeran geratu badira, nahiz eta kotizaziopeko pentsiorako eskubidea izan.

Aparteko prestazio honetarako irispide izango dute ere aldizkako kontratu finkoa duten edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiteko denbora partzialeko lan-kontratu mugagabea duten langileek, baldin eta kotizaziopeko prestazioa 2022ko otsailaren 28 baino lehen amaitzen bazaie.

3. Aparteko prestazio honek jarduera-kanpaina edo kotizaziopeko prestazioa amaitzen den egunaren biharamunetik 2022ko otsailaren 28ra bitartean egongo da indarrean. Eskabidea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 268. artikulua xedatutako epearen barruan aurkeztu beharko da. Epe horren barruan aurkeztu ezean, eskabidea egiten den egunean bertan sortuko da prestaziorako eskubidea.

4. Prestazioa eten ahal izango da langilea bere jarduerara itzultzen bada aldi baterako, eta, orduan, enpresak langilearen aparteko prestazioaren baja jakinarazi beharko dio entitate kudeatzaileari. Langileak berak jakinarazi beharko dio entitate kudeatzaileari bere baja, baldin eta bere kontura lanean hasten bada, edo inoren kontura lanean hasten bada beste enpresa batean, eta ez aldizkako kontratu finkoa daukan enpresan bertan. Kasu guztietan, langilearen eskariz berriz hasi ahal izango da aparteko prestazioa, langileak aurretik frogatzen badu bere kontura lan egiteari utzi diola bere gogoaren kontra, edo berriz dagoela langabeziako legezko egoeran. Betiere, eskabide hori 2022ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da.

5. Aparteko prestazioa lehenengo apartatuan xedatutakoari jarraikiz aitortzen bada, bateragarria izango da denbora partzialeko inoren konturako lanarekin –aurreko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen aldi berean egiten denarekin– eta ez da kenkaririk aplikatuko. Gainerako kasuetan, lan egindako denborari dagokion proportzioa kenduko zaio prestazioari.

6. Hilabetero ordainduko da prestazio hori, eta kalkulatzeko, eragindako pertsonak langabeziagatik jaso duen kotizaziopeko azken prestazioaren oinarri arautzailea baliatuko da edo, kasua denean, kotizaziopeko prestazioaren oinarri arautzailea.

Hala ere, artikulua honetan aipatu langileei aitortuko zaien aparteko prestazioaren zenbatekoa zehazteko, dagokion oinarri arautzaileari ehuneko 70 aplikatuko zaio 2022ko otsailaren 28ra arte.

7. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan arautzen diren langabeziagatiko babesaren arloko ezohiko neurriak 2022ko otsailaren 28ra arte aplikatuko dira.

## II. TITULUA

### Langile autonomoak babesteko neurriak

8. artikulua. *Kotizazio-salbuespena langile autonomoen alde, hain zuzen, Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren babesean jarduera uzteagatik prestazio-modalitatearen bat jaso duten langile autonomoen alde.*

1. 2021eko urriaren 1etik aurrera, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartuta dauden langile autonomoek eskubidea izango dute Gizarte Segurantza eta lanbide-heziketa direla-eta ordaindu behar dituzten kotizazioetan salbuespenak izateko, baldin eta araubide horietan alta emanda badaude eta irailaren 30ean maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluan aurreikusten diren jarduera uzteagatiko prestazioetako bat jasotzen badute. Hauek izango dira salbuespenen ehunekoak:

- a) Urriko kotizazioen ehuneko 90.
- b) Azaroko kotizazioen ehuneko 75.
- c) Abenduko kotizazioen ehuneko 50.
- d) 2022ko urtarrileko kotizazioen ehuneko 25.

Kotizazioan onura horiek aplikatu ahal izateko, langile autonomoek 2022ko urtarrilaren 31ra arte eutsi beharko diote altari Gizarte Segurantzako dagokion araubide berezian.

2. Langile autonomoak jarduera uzteagatiko prestazioa eskuratu aurretik zer kotizazio-oinarriren arabera kotizatzen zuen, hori bera izango da salbuespena zehazteko baliatuko den kotizazio-oinarria.

3. Jarduera uzteagatiko prestazioa edozein modalitatetan jasotzea bateraezina izango da manu honetan ezarritako kotizazio-salbuespenarekin.

4. Maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluetan jasotako jarduera uzteagatiko prestazioetarako eskubidea galduta manu honetako salbuespenak bidegabe lortuz gero, arazoa ofizios berrikusiko du eskumena duen entitate edo organismoak.

5. Manu honetan xedatutakoa errege lege-dekretu honen 9. artikuluan aipatzen diren prestazioak ahitzen zaizkien langile autonomoei aplikatuko zaie, artikuluko horren 4. apartatuan aipatzen diren salbuespenak amaitzen direnetik 2022ko urtarrilaren 31ra arte.

6. Mutualitate laguntzaileek eta, kasua denean, Itsasoko Gizarte Institutuak hartuko dute beren gain artikuluko honetan ezarritako kotizazio-salbuespenak, haien aurrekontuen kargura ordaindu dira eta maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluek xedatutako prestazioak, hain zuzen, salbuespen hauetarako eskubidea sortzen dutenak. Berdin jokatuko da artikuluko honetan aipatzen diren salbuespenak aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorio direnean.

9. artikulua. *Jarduera uzten dutenentzako aparteko prestazioa, COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritza eskudunak emandako ebazpenen ondorioz jarduera ekonomikoa aldi batez erabat etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoentzako.*

1. 2021eko urriaren 1etik aurrera, agintari eskudunak COVID-19 birusaren hedapenari eusteko neurri gisa hartutako ebazpen baten ondorioz jarduera guztiak eten

behar dituzten langile autonomoek, edo adierazitako data baino lehen hasitako jardueraren etenaldiari arrazoi berberengatik eusten diotenen eskubidea izango dute jarduera uzteagatik aparteko prestazio ekonomikoa jasotzeko, manu honetan ezarritakoaren arabera, eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian afiliatuta eta alta emanda egotea jarduera etetea erabakitzen duen ebazpena eman baino hogeita hamar egun natural lehenago gutxienez, eta, nolahi ere, etetea 2021eko urriaren 1a baino lehen dekretatu bada, hura hasi baino lehen.

b) Gizarte Segurantzarekiko kuotak ordainduta izatea. Hala ere, jarduera eten den datan betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

2. Aritutako jarduerari dagokion gutxienerako kotizazio-oinarriaren ehuneko 70 izango da prestazioaren zenbatekoa.

Hala ere, etxebizitza bateko familia-unitatean edo antzeko bizikidetz-unitatean lehen gradura arteko ahaideak (odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) elkarrekin bizi badira eta bi kidek edo gehiagok aparteko prestazioa jaso ahal badute jarduera uzteagatik, prestazio bakoitzaren zenbatekoa gutxienerako kotizazio-oinarriaren ehuneko berrogeia izango da.

3. Prestazioa jasotzeko eskubidea agintaritza eskudunak jarduera itxiarazten duen neurria hartu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da, edo 2021eko urriaren 1etik aurrera, jarduera data horren aurretik eten bada eta eteteari eusten bazaio.

4. Jarduera etenda den aldian, langile autonomia alta emanda egongo da behar den araubide berezian, eta ez du edukiko kotizatu beharrik. Kuotak ordaintzetik salbuetsita egongo da jarduera ixteko neurria hartzen den hilaren lehen egunetik, edo 2021eko urriaren 1etik, jarduera data horren aurretik eten bada eta eteteari eusten bazaio, neurri hori kendu eta hurrengo hilaren azken egunera arte, edo 2022ko otsailaren 28ra arte, otsailaren 28a beste data hori baino lehenagokoa bada.

Langile autonomia kotizatze betebeharretik salbuetsita dagoen aldia kotizatutzat hartuko da, eta hari dagozkion kotizazioak beren aurrekontuen kargura prestazioa estaltzen duten entitateek ordainduko dituzte.

Aparteko prestazio hau jasotzen den bitartean, kotizazio-oinarria prestazioa ematen hasten denean ezarritakoa izango da.

Jarduera uzteagatik ematen den aparteko prestazioa jasotzen duen langilearen kotizazioetan aplika daitezkeen kenkarien gehieneko iraupena eta haiek aplikatzeko gainerako baldintzak ez dira aldatuko aparteko prestazioa jasotzeagatik.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak apartatu honetan ezartzen dena betetzeko behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, hark ezartzen dituen prozeduren bitartez, bai prestazioa behin-behinean onartzen denean, bai ondoren, berrikusten denean, 9. apartatuan ezartzen den bezala.

5. Prestazioa jasotzea bateraezina izango da besteren konturako lan bat egiteagatik ordainsari bat jasotzearekin –baldin eta besteren konturako lanaren diru-sarrerak lanbide arteko gutxienerako soldataren zenbatekoa baino 1,25 aldiz txikiagoak ez badira–, norberaren konturako beste jarduera bat egitearekin, itxierak jarduera ukitu dion sozietatetik datozen etekinak jasotzearekin, bai eta Gizarte Segurantzako prestazio bat jasotzearekin ere, alde batera utzita onuradunak egiten zuen jarduerarekin bateragarria zelako jasotzen duena.

Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartutako norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da, gainera, flota gerarazteagatik ematen diren laguntzekin.

6. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hori jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta erabaki badute norberaren konturako

langileen araubide berezian sartzea eta artikulua honetan ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

7. Prestazio hau Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dute.

8. Prestazio berri honek gehienez bost hilabeteko iraupena izango du, eta neurriak kentzea erabakitzen den hilabeteko azken egunean amaituko da jasotzeko eskubidea, edo 2022ko otsailaren 28an, otsailaren 28a data hori baino lehenagokoa bada.

Prestazioa jasotzen emandako denborak ez ditu laburtuko jarduera uzteagatik onuradunak etorkizunean jaso ditzakeen prestazioen aldiak.

9. Artikulu honetan araututako prestazioa jarduera ixteko erabakia edo ebazpena indarrean jarri ondorengo lehen hogeita bat egun naturalen barruan eskatu beharko da, edo urriaren 21a baino lehen, jarduera etetea 2021eko urriaren 1a baino lehen erabaki bada eta maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitako aparteko prestazioa jasotzen ari ez bada.

Eskabidea epez kanpo aurkezten bada, eskaera egiten den hilaren hurrengo hileko lehen egunean hasiko da prestazioa jasotzeko eskubidea. Kasu horietan, langile autonomoak prestazioa jasotzeko eskubidea duen egunetik bertatik egongo da kotizazioa ordaintzeko salbuetsita.

Prestazioa kudeatzen duten entitateek dagokien behin-behineko ebazpena emango dute, eta eskubidea baietsi edo ezetsiko dute, aurkeztutako eskabidearen eta, halakorik badago, dokumentuen arabera. Jarduera ixteko neurria amaitutakoan, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira. Interesdunak prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duela ondorioztatzen bada, bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasiko dira, eta, kasu horietan, gainera, prestazioa bidegabe jaso den aldi osoari dagozkion kotizazioak ere ordaindu beharko dira, eta, horretarako, Gizarte Segurantzaren sistemako diru-bilketa kudeatzeko prozedura osorik aplikatuko da.

10. Prestazioa eskatzean, interesdunak mutualitateari edo prestazioa kudeatzen duen entitateari jakinarazi beharko dio familia-unitatea zer kidek osatzen duten eta horietakoren batek jarduera uzteagatik prestazioa jasotzen duen edo jaso dezakeen edo bestelako diru-sarrerarik duen. Gainera, eskabidean adierazi behar da familia-unitateko kide guztiak baimena ematen dutela beren zerga-informazioa ikusten uzteko.

Eskabidea izapidetzea onartuko bada, besteren konturako lanaren ondorioz jasotzen dituen diru-sarreraren zinpeko aitortzea aurkeztu behar du interesdunak, halako diru-sarrerarik badago, eta, horrez gain, Gizarte Segurantzako Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei baimena eman beharko die prestazioa jasotzeko bete behar diren eskakizunak betetzen ote diren egiazta dezaten behar diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari. Nolanahi ere, prestazioa jasotzen duenak enpresa-ziurtagiria eta errenta-aitortzea aurkeztu beharko dizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

## 10. artikulua. *Jarduera uzteagatik prestazioa, norbere kontura lan egitearekin bateragarria.*

1. 2021eko urriaren 1etik aurrera, langile autonomoek, baldin eta 2021eko irailaren 30ean jasotzen bazuten norbere kontura lan egitearekin bateragarria den jarduera uzteagatik prestazioa, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan arautua, eta ez bazaizkie amaitu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 338.1 artikuluan aurreikusitako prestazio-aldiak (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), 2022ko otsailaren 28ra arte jaso ahal izango dute prestazio hori, baldin eta manu honetan adierazitako eskakizunak betetzen badituzte 2021eko hirugarren eta laugarren hiru hilekoan.

Langile autonomoek, era berean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatik prestazioa eskatu ahal izango dute, baldin eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 330.1 artikuluko a), b), d) eta e) letretan ezarritako eskakizunak betetzen badituzte eta artikulua



honetan jasotako eskakizunak betetzen badituzte. Prestazio hori jasotzeko eskubideak 2022ko otsailaren 28an izango du bukaera.

2. Prestazioa eskuratu ahal izateko, egiaztatu beharko da norberaren konturako jardueraren bidez 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan lortutako diru-sarreretan, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, 2019ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan lortutakoak baino ehuneko 50 gutxiago direla, eta 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan lortutako etekin garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, ez direla 8.070 eurotik gorakoak izan.

Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, 2019ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan alta emanda egindako aldia hartuko da kontuan, eta 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoekin alderatuko da.

Beren kargura gutxienez langile bat duten langile autonomoek, prestazioa eskatzean, egiaztatu beharko dute beren gain hartutako laneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak betetzen dituztela. Horretarako, langile autonomoek erantzukizunpeko adierazpen bat egingo dute, eta alderdi hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu ahal izango diete Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo entitate kudeatzaileak.

3. 2021eko irailaren 30ean maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluko prestazioa jasotzen ari denak ezin izango du sortu prestazio hau jasotzeko eskubidea, egun horretan Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 338.1 artikuluan aurreikusitako aldi osoa kontsumitu badu.

4. Prestazioa behin-behinean aitortuko dute mutualitate laguntzaileek edo Itsasoko Gizarte Institutuak, 2021eko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin, ekainaren lehen hogeita bat egun naturalen barruan eskatzen bada, edo, bestela, eskabidea egin eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrerako ondorioekin, eta 2022ko maiatzaren 1etik aurrera erregularizatu beharko da.

Eskabidea izapidetzea onartu ahal izateko, Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei baimena emango zaie prestazioa eskuratzeko eskakizunak betetzen ote diren egiazta dezaten beharrezkoak diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari.

5. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak 2022ko maiatzaren 1etik aurrera eskatuko dizkiote dagokion zerga-administrazioari 2021eko ekitaldiko zerga-datuak.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egunean:

1.a BEZ balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioaren 303 ereduaren kopia, 2019ko eta 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako aitorpenei dagokiena.

130 ereduaren kopia, 2019ko eta 2021eko bigarren eta laugarren hiruhilekoetako PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuko autolikidazioari dagokiona.

2.a PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren arabera (131 eredu) ordaintzen duten langile autonomoek beharrezkoa den dokumentazioa edo beste edozein frogabide aurkeztu beharko dute manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko.

Hala ere, eta 2019ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan izandako norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergetan kontuan hartu beharreko diru-sarrerak ehuneko 50 baino gehiago murriztu direla egiaztatze aldera, zergak zenbatespen objektiboaren bidez ordaintzen dituzten langile autonomoek murrizketa hori izan dutela iritziko zaio, baldin eta dagokion jarduera ekonomikoan afiliatuta eta Gizarte Segurantzako sistemari alta emanda dauden langileen eguneko batez besteko kopurua 2019ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako dagokien eguneko batez bestekoa baino ehuneko 7,5 txikiagoa bada prestazioa jaso den aldian (jarduera ekonomikoa EJSNren lau digituren bidez adierazten da).

6. Prestazioa aitortzeko eskumena duen entitate laguntzaileak edo kudeatzaileak datuak egiaztatu ondoren, jasotako prestazioak erreklamatuko zaizkie manu honetan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten langile autonomoei.

Erreklamazioa egiteko eskumena duen entitateak zehaztuko du zer egunetan ordaindu behar diren erreklamatuak zenbatekoak; interesik edo errekar gurik gabe ordaindu beharko dira betiere.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, ordaindu gabeko zorra erreklamatu du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, erreklamatu denaren barne direla Gizarte Segurantzaren Bilketari buruzko Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekar guak eta interesak (erregelamendu hori ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

7. Prestazioa jasotzen ari den bitartean, langile autonomoak kotizazio guztiak ordaindu beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, dagokion kotizazio-oinarriari indarrean dauden tasak aplikatuta.

Mutualitate laguntzaileak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, jarduera uzteagatiko prestazioarekin batera, langile autonomoak inolako jarduerarik egingo ez balu ordaindu beharko lituzkeen gertakari arruntengatiko kotizazioen zenbatekoa ordainduko dio langile autonomoari, Gizarte Segurtasunaren Lege Orokorren testu bateginaren 329. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

8. Jarduera behin betiko utziz gero, 2022ko otsailaren 28a baino lehen, artikulua honetan ezarritako eskakizunen mugak jarduerak iraun duen denborarekiko proportzioan hartuko dira. Halakoetan, kalkulua egiteko, osorik kontuan hartuko da langilea dagoen Gizarte Segurantzaren araubidean baja hartzen den hila.

9. Artikulu honetan arautzen den prestazioa eskatzen duen langile autonomoak aukera hauek ditu:

a) Hari edozein unetan uko egitea 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen; uko egiteak jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean izango ditu ondorioak.

b) Jarduera uzteagatiko prestazioa bere ekimenez itzuli, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen den mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon beharrik gabe, baldin eta uste badu 2021eko hirugarren eta laugarren hiru hilabeteetako diru-sarrera garbiek, zergetarako kontuan hartu beharrekoek, 2. apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta horrekin prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

10. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, jarduera uzteagatiko prestazioa bateragarria izan daiteke besteren konturako lanarekin, eta kasu horretan baldintza hauek aplikatuko dira:

a) Norberaren konturako lanaren ondoriozko diru-sarrera garbiak, zergetarako kontuan hartu beharrekoak, eta besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak ezingo dira izan lanbide arteko gutxieneko soldata baino 2,2 aldiz handiagoak. Zenbaketa hori zehaztean, besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak ez dira izango lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,25 baino gehiago.

b) Jardueraren arabera dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 50 izango da prestazioaren zenbatekoa.

c) Eskabidearekin batera, besteren konturako lanaren ondorioz jasotako diru-sarreraren zinpeko adierazpena aurkeztuko da, prestazioa kudeatzen duen entitateari enpresa-ziurtagiria eta errenta-aitorpena aurkezteko betebeharra alde batera utzi gabe.

d) Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta apartatu honetan xedatutakoaren kontra ez badao.

11. artikulua. *Jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa, jardunean ari diren eta 2021eko irailaren 30ean Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluetan xedatutako jarduera uzteagatiko prestazioetako bat jasotzen ari diren langile autonomoentzat, baldin eta errege lege-dekretu honen 10. artikulua xedatzen duen jarduera uzteagatiko prestazio arrunta jasotzeko eskubiderik sortu ezin badute.*

1. Jardunean ari diren eta 2021eko irailaren 30ean maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluetan aurreikusten diren jarduera uzteagatiko prestazioetako bat jasotzen ari diren langile autonomoek, baldin eta ezin badute aurreko artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatiko prestazio arrunterako eskubiderik sortu, artikulua honetan aurreikusitako jarduera uzteagatiko aparteko prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izango dute, 2021eko urriaren 1etik aurrera, eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Alta emanda egotea norberaren konturako langile modura Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian 2020ko apirilaren 1etik baino lehenagotik, eta kotizazioak ordainduta edukitzea.

Hala ere, eskabidea aurkezten duen datan ez badu betetzen kotizazioen ordainketa egunean edukitzeko eskakizuna, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain dituzan eskatuko dio organo kudeatzaileak langile autonomoari. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

b) 2021eko hirugarren eta laugarren hiruilekoetan norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergetarako kontuan hartu beharreko etekin garbiak lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75etik gorakoak ez izatea aldi horretan.

c) 2021eko laugarren hiruilekoan, norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergetarako kontuan hartu beharreko diru-sarrerak 2019ko laugarren hiruilekoan izandakoak baino ehuneko 75 txikiagoak izan direla egiaztatzea.

Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, 2019ko laugarren hiruilekoan alta emanda egindako aldia hartuko da kontuan, eta 2021eko laugarren hiruilekoan izandako diru-sarreraren zati proportzionalarekin alderatuko da, proportzio berean.

2. Aritutako jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 50 izango da prestazioaren zenbatekoa.

Hala ere, etxebizitza bateko familia-unitatean edo antzeko unitatean lehen gradura arteko ahaideak (odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) elkarrekin bizi badira eta bi kidek edo gehiagok prestazio hau edo beste bat jaso ahal badute jarduera uzteagatik, ehuneko 40 izango da prestazio honen zenbatekoa.

3. Beren kargura gutxienez langile bat duten langile autonomoek, prestazioa eskatzean, egiaztatu beharko dute beren gain hartutako laneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak betetzen dituztela. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo dute, eta alderdi hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu ahal izango diete Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo entitate kudeatzaileak.

4. Jarduera uzteagatik emango den aparteko prestazio hori 2021eko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin hasi ahal izango da sortzen, eta gehienez bost hilabete iraungo du, baldin eta eskabidea urriko lehen hogeita bat egun naturaletan aurkezten bada. Horrela egin ezean, eskabidea aurkezten den hilaren ondoko hileko lehen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak. Prestazio honek 2022ko otsailaren 28ra arte iraungo du gehienez.

5. Prestazioa jasotzea bateraezina izango da besteren konturako lan bat egiteagatik ordainsari bat jasotzearekin, norberaren konturako beste jarduera bat egitearekin, sozietate batetik datozen etekinak jasotzearekin, eta Gizarte Segurantzako prestazio bat

jasotzearekin, onuradunak egiten zuen jarduerarekin bateragarria zelako jasotzen duena alde batera utzita.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da flota gerarazteagatik ematen diren laguntzekin.

6. Prestazioa jasotzen ari den bitartean, langile autonomoak dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean alta emanda egon beharko du eta kotizazio-oinarriari indarrean dauden tasak aplikatuta ordaindu beharko dizkio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari kotizazio guztiak.

Mutualitate laguntzaileak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, jarduera uzteagatik prestazioarekin batera, langile autonomoak inolako jarduerarik egingo ez balu ordaindu beharko lituzkeen gertakari arruntengatik kotizazioen zenbatekoa ordainduko dio langile autonomoari, Gizarte Segurtasunaren Lege Orokorraren testu bateginaren 329. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Aparteko prestazio hau jasotzen den bitartean, aplikatuko den kotizazio-oinarria prestazioa ematen hasten denean ezarritakoa izango da.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak apartatu honetan ezartzen dena betetzeko behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, hark ezartzen dituen prozeduren bitartez, bai prestazioa behin-behinean onartzen denean, bai ondoren berrikusten denean, artikuluko honen 8. eta 9. apartatueta ezartzen den bezala.

7. Prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da, baldin eta prestazioa jasotzen den bitartean eskakizunak betetzen badira, arau honen 10. artikuluan jasotako jarduera uzteagatik prestazioa jasotzeko edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan araututako jarduera uzteagatik prestazioa jasotzeko eskubidea sortzeko, hargatik eragotzi gabe interesdunak dagokion prestazioa eskatzeko duen eskubidea.

8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute, ezarritakoaren arabera, norberaren konturako langileen araubide berezian sartzea erabaki badute eta horretarako behar diren eskakizunak betetzen badituzte.

9. Prestazio hau Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dute.

Prestazioa kudeatzen duten entitateek dagokien behin-behineko ebazpena emango dute, eta eskubidea baietsi edo ezetsiko dute, aurkeztutako eskabidearen eta, halakorik badago, dokumentuen arabera.

Eskabidea izapidetzea onartuko bada, besteren konturako lanaren ondorioz jasotzen diren diru-sarrerari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da, halako diru-sarrerarik badago, eta, horrez gain, baimena eman beharko zaie Gizarte Segurantzako Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei prestazioa jasotzeko bete behar diren eskakizunak betetzen ote diren egiazta dezaten behar diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari. Nolanahi ere, prestazioa jasotzen duenak enpresa-ziurtagiria eta errenta-aitorpena aurkeztu beharko dizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

10. Emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira 2022ko maiatzaren 1etik aurrera.

a) Horretarako, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek 2019ko eta 2021eko azken hiru hiru hilekoei buruzko zerga-datuak eskatuko dizkiote dagokion zerga-administrazioari.

Gizarte Segurantzarekin edo Itsasoko Gizarte Institutuarekin elkarlanean diharduten mutualitateek ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egunean:

1.a 2019. urteko BEZaren urteko laburpen-aitorpenaren 390 ereduaren kopia eta haren hiruhilekoko likidazioenak (303 ereduak), bai eta 2021. urteko bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako likidazioenak ere (303 ereduak).

PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko, 2020ko eta 2021eko hiruhilekoetako bakoitzaren autolikidazioen kopiak (130 ereduak). Pertsona fisikoen errentaren gaineko aitortpena edo besteren kontura jasotako ordainsarien berri ematen duen enpresa-ziurtagiria.

2.a PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren arabera (131 ereduak) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko.

Hala ere, eta norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergetarako kontuan hartu beharreko diru-sarreraren murrizketa eta etekin garbieraren muga egiaztatze aldera, zergak zenbatespen objektiboaren bidez ordaintzen dituzten langile autonomoek murrizketa hori izan dutela iritziko zaio, baldin eta Gizarte Segurantzako sistemari afiliatuta eta alta emanda dagokion jarduerari ekonomikoan dauden langileen eguneko batez besteko kopurua 2019ko laugarren hiruhilekoari dagokion eguneko batez bestekoa baino % 7,5 txikiagoa bada prestazioa jaso den aldira zehar (jarduerari ekonomikoari lau digituren bidez adierazten da (EJSN)).

b) Ondorioztatzen bada interesdunak ez duela eskubiderik prestazioa jasotzeko, izapideak hasiko dira jaso behar ez zituen zenbatekoak erreklamatzeko.

Horretarako, prestazioa aitortzeko eskumena duen entitateak ebazpen bat emango du, itzuli beharreko diru kopuruaren zenbatekoa zehazten duena. Diru kopuru hori interesik edo errekararik gabe itzuli beharko da ebazpenean zehaztutako epean.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, ordaindu gabeko zorra erreklamatu du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, erreklamatu denaren barne direla Gizarte Segurantzaren Bilketari buruzko Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekararik eta interesak.

11. Prestazioa eskatzean, interesdunak mutualitateari edo prestazioa kudeatzen duen entitateari jakinarazi beharko dio familia-unitatea nork osatzen duen eta haietakoren batek jarduerari uzteagatik prestazioa jasotzen duen edo jaso dezakeen edo bestelako diru-sarrerarik duen.

12. Artikulu honetan arautzen den prestazioa eskatzen duen langile autonomoak aukera hauek ditu:

a) Hari edozein unetan uko egitea 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen; uko egiteak jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetearen izango ditu ondorioak.

b) Jarduerari uzteagatik prestazioa bere kabuz itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitateak edo entitate kudeatzaileak erreklamatu zain egon gabe, uste bada 2021eko laugarren hiruhilekoan izandako diru-sarrerak edo aldi horretako fakturazioaren beherakadak 1. apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta ondorioz prestaziorako eskubidea galduko duela.

12. artikulua. *Jarduerari uzten duten sasoikako langile autonomoentzako aparteko prestazioa.*

1. Manu honen ondorioetarako, hauek hartuko dira sasoikako langiletzat: 2018. eta 2019. urteetan, urte bakoitzean gutxienez lau hilabetez eta gehienez zazpi hilabetez Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian baino lan egun ez duten langile autonomoak.

Langile autonomoak 2018an eta 2019an lan bakarria egin duela iritziko zaio, baldin eta, gizarte-segurantzako erregimen batean besteren konturako langile gisa alta emanda egon bada ere, alta horrek urte horietan ehun eta hogeita egun gainditzen ez baditu.



2. Prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, eskakizun hauek bete beharko dira:
  - a) Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian alta emanda eta kotizatzen egotea norberaren konturako langile gisa, gutxienez lau hilabetez eta gehienez zazpi hilabetez, 2018. urtean eta beste hainbeste 2019. urtean; denbora-esparru horrek gutxienez bi hilabete hartu behar ditu urte horietako urritik abendura bitartean.
  - b) 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan besteren konturako langile gisa Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean 60 egun baino gehiago alta emanda edo horren pareko egoeran ez egotea.
  - c) 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan lortutako eta zergetarako kontuan hartu beharreko diru-sarrera garbiak 6.725 eurotik gora ez izatea.
  - d) Gizarte Segurantzarekiko kuotak ordainduta izatea. Hala ere, eskakizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeko erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.
3. Artikulu honetan arautzen den prestazioaren zenbatekoa hau izango da: Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, bestela, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian egindako jarduerari dagokion gutxienezko kotizazio-oinarriaren ehuneko 70.
4. Artikulu honetan arautzen diren jarduera uzteagatik aparteko prestazioak 2021eko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin hasi ahal izango dira sortzen, eta bost hilabeteko iraupena izango dute gehienez, baldin eta eskabidea urriko lehenengo hogeita bat egun naturalen barruan aurkezten bada. Bestela, eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean hasiko dira ondorioak, eta gehienez 2022ko otsailaren 28ra arte iraungo dute.
5. Prestazioa jasotzen den bitartean, ez dago kotizatzeko betebeharririk, eta langilea alta emanda edo horren pareko egoeran egongo da Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean.
6. Kotizatzeko betebeharririk ez duten kotizazioak dena delako prestazioa beren aurrekontuen kargura estaltzen duten entitateek hartuko dituzte beren gain.
7. Prestazio hori bateraezina izango da besteren konturako lanarekin eta onuraduna jasotzen ari den Gizarte Segurantzako edozein prestaziorekin, salbu eta norberaren konturako langile gisa jardutearekin bateragarria dena. Era berean, bateraezina izango da norberaren konturako lanarekin eta itxierak jarduera ukitu dion sozietatearen etekinak jasotzearekin, baldin eta 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan jasotako diru-sarrerak 6.725 euro baino gehiago badira.
- Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartutako norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik prestazioa bateraezina izango da, halaber, flota geldiarazteagatik laguntzak jasotzearekin.
8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute, baldintza berekin, behar den araubide berezian norberaren konturako langile gisa sartzeko erabaki badute eta artikulu honetan ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.
9. Prestazio hau Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dute.
- Eskabidea izapidetzea onartuko bada, Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei baimena emango zaie prestazioa eskuratzeko eskakizunak betetzen ote diren egiazta dezaten beharrezkoak diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari.
10. Artikulu honetan araututako prestazioa noiznahi eskatu ahal izango da araua indarrean jartzen denetik 2022ko urtarrilera arte.
- Eskabidearen ondorioak 4. apartatuan ezarritakoak dira.

Entitate kudeatzaileek behin-behineko ebazpena emango dute, eta eskubidea baietsi edo ezetsiko dute aurkeztutako eskabidearen eta, halakorik badago, dokumentuen arabera.

11. Emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira 2022ko maiatzaren 1etik aurrera.

a) Horretarako, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako zerga-datuak eskatuko dizkiote dagokion zerga-administrazioari.

Gizarte Segurantzarekin edo Itsasoko Gizarte Institutuarekin elkarlanean diharduten mutualitateek ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egunean:

1.a 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako 303 aitorpen-ereduaren kopia. 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuko autolikidazioari dagokion 130 ereduaren kopia.

2.a PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren arabera (131 eredu) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko.

b) Ondorioztatzen bada interesdunak ez duela eskubiderik prestazioa jasotzeko, izapideak hasiko dira jaso behar ez zituen zenbatekoak erreklamatzeko.

Horretarako, prestazioa aitortzeko eskumena duen entitateak ebazpen bat emango du, itzuli beharreko diru kopuruaren zenbatekoa zehazten duena. Diru kopuru hori interesik edo errekar gurik gabe itzuli beharko da ebazpenean zehaztutako epean.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, ordaindu gabeko zorra erreklamatu du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, erreklamatu denaren barne direla Gizarte Segurantzaren Bilketari buruzko Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekar guak eta interesak.

12. Artikulu honetan arautzen den prestazioa ordaintzeko eskatzen duen sasoikako langile autonomoak aukera hauek ditu:

a) Hari edozein unetan uko egitea 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen; uko egiteak jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean izango ditu ondorioak.

b) Jarduera uzteagatiko prestazioa bere ekimenez itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon beharrik gabe, baldin eta uste badu horretarako eskubidea sortzen duen aldiari jasoko dituen diru-sarrerak 2.c) apartatuan ezarritako atalaseak gaudituko dituztela eta horrekin prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea.*

1. Hauek osatuko dute Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak, Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioak (CEOE), Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioak (CEPYME), Langile Komizioek (CCOO) eta Langileen Batasun Orokorra (UGT). Eta, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, eginkizun hauek izango ditu: hemen jasotako neurriak eta ekonomia-jardueraren eta enpleguaren bilakaera ebaluatzea.

2. Zeregin horiek burutzeko, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak hilabetero bidaliko die batzordea osatzen duten erakundeei arau honetan jasotako neurrien bilakaerari buruz behar diren datuak.

Halaber, batzordea bildu egingo da beharrezkotzat jotzen bada, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak aurretik deialdia eginda, edo erakunde batzordekideetako batek forma egokia erabiliz eskatzen badu.

Bigarren xedapen gehigarria. *Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren jarduketa.*

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari dagokio, bere eskumenak baliatzean, kotizazio-salbuespenekin zerikusia duten eskakizunak eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzea, hain zuzen, hauetan ezarritakoak: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretua, bai eta errege lege-dekretu honen 4. artikuluan eta xedapen iragankorrean ezarritakoak ere.

Horretarako, Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko salbuespena zuzen aplikatzeari buruz zehazten diren kontrol-ekintzak garatuko dira; araua bete ezean, dagozkion zehapen-espeditenteak eta kuoten likidazioak eskatzekoak abiarazi ahalko dira.

Zehazki, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari dagokio kontrolatzea dena delako kuoten likidazioa kalkulatzeko baliatu diren datuak, enpresek emandako erantzukizunpeko adierazpenak edo erabili den beste edozein informazio benetakoa eta zehatza dela, eta eskatutako guztiak eman dela, bai eta kotizazio-salbuespena aplikatu zaien aldian, hain zuzen, enpresak lan-harremana eten edo lanaldia murriztu dela adierazi duen aldian, lan-jarduna benetan ez dela izan ere.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Kotizazioaren arloko hobariak Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismoaren eremuan prestakuntza-ekintzak garatzearekin lotzea.*

1. Etorkizunean abian jarriko den Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismoaren eremuan, kotizazioaren arloko hobariak enpresek benetako prestakuntza-ekintzak egitearekin zuzenean lotzea aurreikusiko da, hain zuzen, mekanismo horren aplikazioaren ondoriozko lanaldi murrizketak eragin dituen langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitearekin; arauak zehaztutakoarekin bat egingo dira ekintza horiek, eta prestakuntza eskaintza osoa balioztatu ahalko da.

2. Etorkizunean legez arautuko denaren arabera Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismora pasako diren 1. eta 2. artikuluetan aipatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espeditenteen kasuan, aurreko apartatuan aipatutako prestakuntza ekintzak honetara bideratu beharko dira: erakundean berrikusi behar diren aldaketa ekonomiko eta teknologikoetara (ekologikoak, energetikoak, trantsizio digitalekoak) egokitzeko behar den trantsizio profesionalera.

Laugarren xedapen gehigarria. *Kotizazioaren eta langabeziagatiko babesaren arloko aparteko neurrietarako irispidea.*

1. Hargatik eragotzi gabe 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoa, 4. artikuluan kotizazioaren arloan ezarritako aparteko neurriak aplikatuko badira eta langabezia-prestazioak aitortuko, enpresek ezinbestean aurkeztu beharko dute langile hauen zerrenda, dagokionaren arabera:

a) Lehenengo artikulua xedatutakoarekin bat luzatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espeditenteen kasuan, 2021eko irailaren 30ean espeditentearen aplikazio-eremuaren barruan dauden langileak, haren luzapenean zehar ere barruan jarraituko dutenak.

b) Bigarren artikulua xedatutakoarekin bat baimendutako edo komunikatutako espedienteen kasuan, hura aplikatzen hasten denean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen barruan dauden langileak.

2. Zerrenda hori aurkeztu beharko da bost egun balioduneko epean, luzatzeko edo baimentzeko eskabidea erabakitzen duen ebazpen espresuak edo administrazio-isiltasunak ondorioak dituen egunetik edo komunikazioa egiten den egunetik kontatuta, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren egoitza elektronikoan aurkeztuko da zerrenda hori, ministerio horren web-orrian publikatuko den eranskinean jasotako ereduaren; behin ereduak bete ondoren, lan-agintaritzaren eskudunaren, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren esku jarriko da, bakoitzak dituen eskumenekin bat jardun dezan.

3. Eragindako langileen kopuruan edo horien nortasunean aldaketarik egonez gero, edozein arrazoiengatik eta horretarako ezarritako eskakizunak aintzat harturik, enpresak aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen sartuko diren langile berrien zerrenda berria aurkeztu beharko du apartatu honetan xedatutakoarekin bat.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Kanariar Uharteetan Cumbre Vieja aldean izandako sumendi-erupzioak eragindako enpresa eta langileentzako aparteko neurriak.*

1. Cumbre Vieja aldean izandako sumendi-erupzioak eragindako enpresak, Kanarietako Autonomia Erkidegoko probintzietan dagozkien kotizazio-kontuko kodeak dituztenek xedapen gehigarri honetan xedatutako aparteko hoberietarako eskubidea izango dute haien jardueraren arrunta garatu ezin izan badute edo mugekin garatu badute eta arrazoi horrengatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baimendu bazaie, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginekoko 47.3 artikulua ezarritakoa oinarritzat hartuta.

Espediente horiekin loturik, lan-agintaritzak bost eguneko epean eman beharko du ebazpena, eta Kaleratze kolektiboko eta kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduren Erregelamenduko 33.1 artikulua jasotzen duen txostena eskatu ahalko du. Urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori.

Ebazpen espresua egon ezean, eskaera onartu dela ulertuko da.

2. Ezinbesteko kausa sortzen den egunetik bertatik izango dituzte ondorioak espediente horiek, eta indarrean egongo dira 2022ko otsailaren 28ra arte; kasua denean, trantsizio mekanismoa, 2. artikuluko 2. eta 3. apartatuak ezarritakoa, aplikatuko zaie.

3. Lehenengo apartatuak jasotako enpresei salbuespen-ehuneko hauek aplikatu ahalko zaizkie, 2021eko irailetik 2022ko otsailera bitartean, jardueraren etenda edo murriztua duten langileei dagokienez eta eteteak eragiten dituen lanaldi-ehunekoei dagokienez:

a) Jardueraren aritzeko modurik ez egotearen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen kasuan, itxialdian sortutako enpresa-ekarpenaren ehuneko ehuna ordaintzetik salbuetsita egon ahalko dira, 2022ko otsailaren 28ra arte.

b) Jarduteko eragozpenen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen kasuan, eragindako aldian sortutako enpresa-ekarpenaren ehuneko 90 ordaintzetik salbuetsita egon ahalko dira, 2022ko otsailaren 28ra arte.

4. Xedapen honek jasotzen dituen salbuespenak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenaren ordaintzari aplikatuko zaizkio, bai eta baterako bilketaren kontzeptuengatik kuoten ordaintzari ere.

Xedapen gehigarri honek jasotzen dituen kuoten salbuespenak aplikatzeko prozedura eta eskakizunak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitakoak izango dira.

5. Xedapen honetan jasotzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako langileek 6. artikuluan xedatutako aparteko neurrien onuradun izan ahalko dira.

Era berean, lehen adierazitako aparteko inguruabarren zuzeneko eragina dela-eta langabezia-prestazio kontributiboa jasotzen den denbora-tartea ez da zenbatuko hura jasotzeko ezarrita dauden gehieneko aldiak kontsumitzearen ondoreetarako.

6. Xedapen gehigarri honetan jasotzen diren kotizazio-salbuespenak bateraezinak dira 4. artikuluan ezarritakoekin.

7. Lehenengo apartatuan jasotako aparteko egoera 2022ko otsailaren 28tik aurrera luzatuz gero, Gobernuak dagokiona egingo du xedapen gehigarri honek jasotzen dituen neurrien indarraldia luzatzeko, hain zuzen, egoerak dirauen bitartean.

Seigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren aparteko neurriak, La Palmako Cumbre Vieja aldean izandako sumendi-erupzioak eragindako langile autonomoentzat.*

1. La Palmako Cumbre Vieja aldean izandako sumendi-erupzioaren eragin zuzenagatik jarduera eten edo utzi behar izan duten langile autonomoek urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko V. tituluan araututako jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea sortu ahalko dute, eta hura jasotzeko ezarrita dauden gehieneko aldiak kontsumitzearen ondoreetarako, ez dira zenbatuko prestazioa jasotzen den lehenengo bost hilabeteak.

Jarduera uzteagatiko prestaziorako irispidea izatearen ondorioetarako, betetzat joko da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 338. artikulua ezarritako kotizazio-eskakizuna.

2. Irailaren 30ean, Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren 6., 7. eta 8. artikuluetan edo bigarren xedapen iragankorrean jasotako prestazioetako bat jaso duten langile autonomoek, baldin eta La Palmako Cumbre Vieja aldean izandako sumendi-erupzioa dela-eta jarduera eten edo utzi behar izan badute, jarduera uzteagatiko prestazioa bost hilabetez jasotzeko eskubidea izango dute, eta denbora hori ez da zenbatuko hura jasotzeko ezarrita dauden gehieneko aldiak kontsumitzearen ondoreetarako.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *La Palma uhartea berreraiki, berreskuratu eta laguntzeko batzorde parekidea.*

1. Batzorde parekidea sortzen da, Estatuaren Administrazio Orokorreko, Kanarietako Autonomia Erkidegoko eta eragindako toki-entitateetako ordezkariak osatua, La Palma uhartean irailetik ari diren seismoek eta sumendi-erupzioek eragindako kalteak arintzeko administrazio publikoek bultzatzen dituzten jarduketak eta neurriak planifikatu, sustatu eta koordinatzeko.

2. Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren titularrak eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko presidentek partekatuko dute batzordeburutza; batzordekide izango dira hauek:

a) Estatuaren Administrazio Orokorrearen hiru ordezkari, Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren titularrak izendatuak. Kanarietako Autonomia Erkidegoko gobernuaren ordezkariak Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren titularra ordeztuko baitu behar izanez gero.

b) Kanarietako Autonomia Erkidegoak izendatutako hiru ordezkari.

c) Eragindako toki-entitateetako lau ordezkari, hauek, hain zuzen: La Palma uharteko kabildoko presidentea eta El Paso, Los Llanos de Aridane eta Tazacorte udalerrietako alkateak.

Batzordeko presidente buruek bileretara deitu ahalko dituzte, landuko diren gaiak aintzat hartuta, beste toki-erakunde batzuetako ordezkariak, adituak edo batzordearen helburuetarako ekarpen baliagarriak egin ditzakeen beste edozein pertsona.

3. Batzorde parekideak eginkizun hauek izango ditu:

a) Administrazioen jardun koordinatua ziurtatzea sumendi-erupzioek eta seismoek eragindako kalteen ebaluazio egokirako eta eragindako herritarren berehalako beharren balorazio zuzenerako, kaltetueentzako laguntzak presaz bideratzea ahalbidetuko baitu.

b) Kalteek eragindako aldeak berreraikitzeke eta berreskuratzeko ekintzak, bai eta larrialdiak ukitu dituen herritarrei arreta emateko beharrezko zerbitzuak ematekoak ere, planifikatzea eta koordinatzea.

c) Administrazio publikoek kaltetuei emandako laguntzen kudeaketaren eta izapidetzeen koordinaziorako mekanismoen funtzionamendu zuzena ziurtatzea eta eragindako pertsoneri eman dakizkien laguntza edo prestazioak bultzatzeko eta bizkortzeko neurriak har daitezzen proposatzea.

d) Eragindako administrazioek hartzen dituzten neurrien jarraipena egitea.

e) Aldizkako ebaluazio-txostenak egitea, kalteen bilakaera orokorrari, berreraikitzeke eta berreskuratzeko jarduketei eta kaltetuei eskaintzen zaizkien babesteko eta laguntzeko neurriei buruzkoak.

4. Horretaz gain, batzorde parekideak bere gain hartuko ditu Babes Zibilaren uztailaren 9ko 17/2015 Legeak 25.2 artikuluan xedatzen dituen Koordinazio Batzordearen eginkizunak.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Datuak ematea lan-fundazio parekideei.*

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak Estatu mailako hitzarmen sektorialen babespeko lan-fundazio parekideei eman ahalko die haien funtzionamendura bideratutako ekarpenen kudeaketarako jarduketa zehatzak burutzeko behar duten informazioa; jarduketak hitzarmen kolektiboak ezarritakoarekin bat gauzatuko dira. Helburu horrekin egiten diren tratamenduek muga izango dute, hain zuzen, guztiz ezinbesteko diren datuak baino ez dira emango. Dena dela, informazioa eman ahal izateko, beharrezkoa da, aurretik, dagokion hitzarmena izenpetzea.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua indarraldia luzatzea.*

Luzatu egiten da, 2022ko otsailaren 28ra arte, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua indarraldia; artikulua horrek MECUIDA plana arautzen du.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluen babespeko prestazioen edo sorospenen luzapena.*

Azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluek –maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak emandako idazketan– jasotako prestazio eta sorospenen iraupena luzatzen da 2022ko otsailaren 28ra arte.



Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren kotizazio-salbuespenen ondorioak.*

Errege lege-dekretu honen 4. eta 8. artikuluetan eta xedapen iragankor bakarrean ezartzen diren Gizarte Segurantzaren kotizazio-salbuespenek ez dute eraginik izango langileengan; alegia, salbuespena aplikatzen den aldia benetan kotizatutakotzat hartuko da ondorio guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak 20. artikuluan 1. eta 3. apartatuetan ezarritakoa.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera lehengoratzeko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordea.*

Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera lehengoratzeko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordearen esku uzten da arau honen 8., 9., 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea. Batzorde hori ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean sortu da.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismoaren eremuan langile autonomoentzako neurriak.*

Etorkizunean abian jarriko den Enpleguan Iraunkortasunerako Mekanismoaren osagarri gisa, langile autonomoentzat, eta gizarte elkarrizketaren esparruan, jarduera uzteagatik prestazioaren erregulazioa berrikusiko da, hura eskuratzeko aukera izan dezaten ere jarduera aldi baterako utzi dutenek, eta babes-ekintzaren barruan ekonomia ziklo negatiboaren edo egiturazko aldaketa ekonomikoen ondoriozko egoerak ere aintzat har daitezten.

Xedapen iragankor bakarra. *Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak I. tituluan eta lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen dituen neurrien luzapena.*

Maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan eta lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoa aplikatzekoa izango da 2021eko urriaren 31ra arte, 2021eko irailaren 30ean indarrean ziren aldi baterako erregulazioko espedientei dagokienez, 2021eko irailean egokitu litzaizkiekeen ehunekoetan.

Urriaren 1etik 31ra onartzen edo komunikatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei ere aplikatuko zaizkie aurreko paragrafoan aipatutako aurreikuspenak, kasu berdinetan eta 2021eko irailean egokitu litzaizkiekeen baldintza eta salbuespen berdinekin, espediente mota bakoitzari dagokionaren arabera eta maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritako modu berean eta baldintza berekin.

Azken espediente horiek maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak xedatutakoarekin bat izapidetuko dira. Hargatik eragotzi gabe aurretik esandakoa, bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie, errege lege-dekretu honek 2. artikuluan xedatutakoaren arabera azaroaren 1etik baimentzen edo komunikatzen diren espedientei aplikatzen zaien modu berean.

Azken xedapenetako lehena. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan 7. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«7. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.1.b) artikuluan aurreikusitako neurria 2020ko irailaren 30era arte egongo da indarrean.

Hargatik eragotzi gabe aurreko paragrafoan xedatutakoa, haien enpleguan krisiaren eragina jasan duten pertsonak, zaurgarrienak bereziki, babestearren, artikuluko honen lehenengo apartatuan adierazitako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen babespean langabeziagatiko prestazioak eskuratu dituztenei ez zaizkie haiek kontsumitutakotzat zenbatuko 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eskubide berri bat sortzen badute, arrazoi hauetako bat dela-eta: iraunaldi mugatuko kontratuaren amaiera; banakako zein taldeko kaleratzea, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak tartean direlako; bidegabera deklaraturako kaleratzea, edozein dela kaleratzearen arrazoa, edo aldizkako kontratu finkoa duten langileen jarduera amaitu edo eten izana, horien barruan direla denbora partzialeko kontratua dutenak data jakin batzuetan lan finko eta aldizkakoak egiteko.

Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan 2020ko urriaren 1etik kontsumitzen diren prestazioen murrizketek ez dituzte eragingo 2027ko urtarrilaren 1etik abiarazten diren prestazio berriak.

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera izandako jardueraztea dela-eta langabeziagatiko prestazioa eskuratzen dutenak, zeinei egunak kontsumitu beharko zaizkie aurreko paragrafoetan xedatutakoarekin bat, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako aldiak baino ez zaizkio kontsumituko.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

2021eko uztailaren 11tik aurrerako ondorioak izango dituelarik, aldatu egiten da 7. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzen duten egunean 30 urtetik beherakoak izanez gero, 4.1.b) artikuluan aipatzen diren onuradunek frogatu beharko dute Espainian modu independentean bizi izan direla egun horren aurreko hiru urtean gutxienez.

Aurreko paragrafoaren ondoretarako, pertsona bat modu independentean bizi izan dela irizteko, pertsona horrek frogatu behar du gurasoen, tutoreen edo harreraren izan dutenen etxetik kanpo bizi izan dela eskaera egin aurreko hiru urtean, eta gutxienez hamabi hilabetez, modu jarraituan nahiz etenekin, alta emanda egon dela Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erregimenetako edozeinetan –Estatuko klase pasiboena barne– edo norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batean.

Eskabidea aurkezten duten egunean 30 urtetik gorakoak izanez gero, 4.1.b) artikuluan aipatzen diren onuradunek frogatu beharko dute Espainian gurasoen, tutoreen edo harreraren izan dutenen etxetik kanpo izan dutela bizilekua egun horren aurreko urtebetean.

Aurreko paragrafoetan ezarritako eskakizunak ez zaizkie eskatuko genero-indarkeriaren biktima izateagatik ohiko bizilekua utzi duten pertsonari, banandu edo dibortziatzeko izapideak hasi dituztenei edo erregelamendu bidez zehazten diren beste egoera batzuetan daudenei.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 7. eta 17. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da; horiek Estatuari eskumen eksklusiboak ematen dizkiote lan-arloko legediaren gainean eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legediaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

Azken xedapenetako laugarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrearantz sartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrearantz.»

Madril, 2021eko irailaren 28an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

## ERANSKINA

### **Kotizazioaren eta langabeziagatiko prestazioen arloko aparteko neurriak eskatu aurreko langileen zerrenda**

Langilearen datuak:

Kotizazio Kontuaren Kodea.  
Langilearen Gizarte Segurantzaren zenbakia.  
Lan-agintaritza eskuduna.  
Espediente-zenbakia.  
ABEEE mota.  
Noiztik data.  
Langilearen izen-abizenak.  
Langilearen nortasun agiriaren zenbakia.  
Enpresan alta noiz.  
Lanaldi-murrizketaren ehunekoa, halakoa dagoenean.

Enpresaren datuak:

- Enpresaren izena.
- Enpresaren IFK.
- Kotizazio Kontu Nagusiaren Kodea.
- Enpresaren helbide elektronikoa.
- Enpresaren ordezkariaren izena.
- Enpresaren ordezkariaren nortasun agiriaren zenbakia.

### **Kotizazioaren eta langabeziagatiko prestazioen arloko aparteko neurriak eskatu aurreko langileen zerrenda osatzeko jarraibideak**

Kotizazioaren eta langabeziagatiko prestazioen arloko aparteko neurriak eskatu aurreko langileen zerrenda EXCEL formatuan eta jarraibide hauek aintzat harturik bidali behar da:

Excel fitxategiak bi fitxa ditu eta behar bezala beteta egon beharko dira.

1. fitxa Langileen datuak.

Excel orrian langile bakoitzari dagozkion eremu guztiak bete behar dira, langile guztientzat komunak direnak barne, adibidez, kontu-zenbakia, lan-agintaritza eskuduna edo noiztik data.

Derrigorrezkoa da eremu guztiak betetzea, ehuneko eremua izan ezik, murrizketa egonez gero; izan ere, enplegurik gabe utzi diren langileen kasuan ez da beteko.

Gainera, hurrengo eremuek egitura zehatz hau izan behar dute:

KONTU ZENBAKIRAKO EREMUA: 15 digitu honela banatuta: ERREGIMENA (4), PROBINTZIA (2) eta ZENBAKIA (9).

GIZARTE SEGURANTZAREN ZENBAKIRAKO EREMUA 12 digitu PROBINTZIA (2) eta ZENBAKIA (10).

LAN AGINTARITZA ESKUDUNERAKO EREMUA 2 digitu, erantsita doan taularekin bat.

ESPEDIENTE ZENBAKIRAKO EREMUA 20 karaktere. Eremu alfanumerikoa, lan-agintaritza bakoitzak kode desberdina duenez, haren ebazpenean kodea nola agertzen den, horrela beteko da.

ABEEE MOTARAKO EREMUA: 3 digitu, erantsita doan taularekin bat. 2021eko irailari dagokion kotizazio-salbuespena aplikatzeko, Gizarte Segurantzari komunikatu behar zaion erantzukizunpeko adierazpenaren kodea jarriko da, hau da, 2021eko urrian

kuotak likidatzeko eskatu aurretik aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpenaren kodea.

NOIZTIK DATA 8 digitu UUUUHHEE formatua baliatuz.

2. fitxa. Enpresaren datuak.

Bigarren fitxaren eremuak behin baino ez dira bete behar eta guztiak dira derrigorrezkoak.

*Lan-agintaritzen kodeak*

Kodea	Agintaritza
01	Araba.
02	Albacete.
03	Alicante/Alacant.
04	Almería.
05	Ávila.
06	Badajoz.
07	Balear Uharteak.
08	Bartzelona.
09	Burgos.
10	Cáceres.
11	Cádiz.
12	Castelló.
13	Ciudad Real.
14	Kordoba
15	Coruña.
16	Cuenca.
17	Girona.
18	Granada.
19	Guadalajara.
20	Gipuzkoa.
21	Huelva.
22	Huesca.
23	Jaén.
24	León.
25	Lleida.
26	Errioxa.
27	Lugo.
28	Madril.
29	Malaga.
30.	Murtzia

Kodea	Agintaritza
31	Nafarroa.
32	Ourense.
33	Asturias.
34	Palentzia.
35	Las Palmas.
36	Pontevedra.
37	Salamanca.
38	Santa Cruz Tenerifekoa.
39.	Kantabria.
40	Segovia.
41	Sevilla.
42	Soria.
43	Tarragona.
44	Teruel.
45	Toledo.
46	Valentzia.
47	Valladolid.
48	Bizkaia.
49	Zamora.
50	Zaragoza.
51	Ceuta.
52	Melilla.
71	Andaluzia.
72	Aragoi.
75	Kanariak.
77	Gaztela-Mantxa.
78	Gaztela eta Leon.
79	Katalunia.
80	Valentziako Erkidegoa.
81	Extremadura.
82	Galizia.
86	Euskal Autonomia Erkidegoa.
99	Estatua.



## ABEEE motak (kodeak)

Kodea	Agintaritza
JARDUERAN ARITZEKO MODURIK EZ EGOTEAGATIKO ABEEEa	
062	JARDUERAN ARITZEKO MODURIK EZ EGOTEAGATIKO ABEEEa 24/2020 ELDaren 1. xedapen gehigarria.
067	JARDUERAN ARITZEKO MODURIK EZ EGOTEAGATIKO ABEEEa 30/2020 ELDaren 2.1. artikulua.
074	JARDUERAN ARITZEKO MODURIK EZ EGOTEAGATIKO ABEEEa 2/2021 ELDaren 2. artikulua.
078	JARDUERAN ARITZEKO MODURIK EZ EGOTEAGATIKO ABEEEa 11/2021 ELDaren 2. artikulua.
083	JARDUERAN ARITZEKO MODURIK EZ EGOTEAGATIKO ABEEEa 2021-10-1etik aurrera baimendutakoak.
JARDUTEKO ERAGOZPENAK IZATEAGATIKO ABEEEa	
068	JARDUTEKO ERAGOZPENAK IZATEAGATIKO ABEEEa 30/2020 ELDaren 2.2 artikulua.
075	JARDUTEKO ERAGOZPENAK IZATEAGATIKO ABEEEa 2/2021 ELDaren 2. artikulua.
079	JARDUTEKO ERAGOZPENAK IZATEAGATIKO ABEEEa 11/2021 ELDaren 2. artikulua.
084	JARDUTEKO ERAGOZPENAK IZATEAGATIKO ABEEEa 2021-10-1etik aurrera baimendutakoak.
EZINBESTEKO ABEEEa	
069	EZINBESTEKO ABEEEa 8/2020 ELDaren 22. artikulua. Estaldura tasa handia duten sektoreetako enpresak, jarduera suspertzeko tasa txikia dutenak, zeinen jarduera 11/2021eko eranskinean jasotako EJSN-09 kodeetako batean sartzen dena.
070	EZINBESTEKO ABEEEa 8/2020 ELDaren 22. artikulua. 069 EZINBESTEKO ABEEEa duten enpresen BALIO-KATEA edo MENDEKOA deklarazioa duten enpresak, 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak adierazten duen prozedurarekin bat.
Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta ABEEEa duten enpresak, hain zuzen, 11/2021 Errege Lege Dekretuaren eranskinean dauden EJSN-09 kodeak dituztenak.	
Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 24/2020 Errege Lege Dekretua.	
072	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 24/2020 Errege Lege Dekretua indarrean dagoenetik ABEEE mota hori zuten enpresak.
Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. EJSN-09 duten enpresak:	
071	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 2020-10-1etik 2021-01-31ra bitartean EZINBESTEKO ABEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.
076	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 2021-02-01etik 2021-05-31ra bitartean EZINBESTEKO ABEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.
080	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 2021-06-01etik 2021-09-30era bitartean EZINBESTEKO ABEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.
085	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 2021-10-01etik 2022-01-31ra bitartean EZINBESTEKO ABEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.
Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 069 EZINBESTEKO ABEEEa duten enpresen BALIO-KATEA edo MENDEKOA deklarazioa duten enpresak, 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak adierazten duen prozedurarekin bat .	
073	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 2020-10-01etik 2021-01-31ra bitartean EZINBESTEKO ABEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.
077	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEa. 2021-02-01etik 2021-05-31ra bitartean EZINBESTEKO ABEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.

Kodea	Agintaritzia
081	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoen edo ekoizpenekoen ondoriozko ABEEEa. 2021-06-01etik 2021-09-30era bitartean EZINBESTEKO ABEEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoen edo ekoizpenekoen ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.
086	Arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoen edo ekoizpenekoen ondoriozko ABEEEa. 2021-10-01etik 2022-01-31ra bitartean EZINBESTEKO ABEEEE batetik arrazoi ekonomikoen, teknikoen, antolakuntzakoen edo ekoizpenekoen ondoriozko ABEEEra pasatu diren enpresak.